

Kultura

Durangoko Kriskitin eta Mazedoniako Orce Nikolov taldeak arituko dira, bihar, Santa Ana plazan egingo duten Durangon Folk jaialdian. > 14



> OPORRAK
HARTUKO
DITUGU
Hurrengo alea
irailaren 2an
kaleratuko dugu

JAIK!

GARAI
MAÑARIA
MALLABIA

Irailean bozkatuko dute Muruetako lurraren birkalifikazio proposamena

Uztailaren 14an burutu zuten Hirigintza Aholku Batzordean Jose Luis Navarro alkatearen kalitateko botoak apurtu zuen Muruetako lursail baten birkalifikazio proposamenak eragindako berdinketa. Lursail hori erabilera komertzialerako esparru izendatzeko hurrengo pausoa irailean emango dute. Udalbatzan bozkatuko dute arau subsidiarioak aldatzeko proposamena. > 2

“Komertziorik ez badago ez dago bizitzarik, eta herriak bizirik mantendu behar dira”



Alex Palacios | Dendak Bai-ko presidentea > 15

Memoriak bizirik dirau Otxandion

Gaur 80 urte bete dira Otxandio bonbardatu zutenetik. Horren harira antolatutako oroimen ekitaldietan sarraski hura eta gerra bizi izan zutenak izango dira protagonista. > 4-5





◆◆◆ Ondo pasa oporretan! ◆◆◆



Barrenkalea, 28 | 946 817 918 | www.naturalkibelardenda.es

Berriz > 6

Isuna ordaintzeko akordiora heldu dira Jauregizar eta udala

Abadiño > 2

Egunero zabalduko dute Gerediagako foru zelaia

Durangaldea > 8

21 lagunek enpresa sortu dute Eskualdeko Planari esker

Durango > 9

Merkealdien kartelen %52 gaztelania hutsez daude

Herririk herri



Irailako osoko bilkuran bozkatuko dute Muruetako lursaila erabilera komertzial izendatzeko proposamena. Lehiar Elorriaga

Aholku batzordearen oniritzia du Muruetako birkalifikazioak

Alkatearen kalitateko botoak hautsi zuen batzordean gertatu zen berdinketa

ABADIÑO J.G. / I.E.

Murueta auzoan merkataritza-gune berri bat eraikitzeke beharrezkoa den arau subsidarioen aldaketa puntualari babesa eman zion joan zen eguneko batzordean Hirigintzako Aholku Kontseiluak. Udal gobernuak prentsa oharrean azaldu duenez, Aholku Kontseilu horretako “lau batzordekidek alde bozkatu zuten, beste lauk aurka, eta boto baliogabe eta abstentzio bana egon zen”. Jose Luis Navarro alkatearen kalitateko botoak hautsi zuen bozketan berdinketa, aldaketa puntualaren aldeko botoa emanez.

Aholku batzordearen onarpen horregaz, Muruetako 31.973 metroko lur arloa erabilera komertzial eta tertziarioko hirilur bihurtzeko proposamena irailako udalbatzarrerara eramateko asmoa du udal gobernu taldeak.

Irailako osoko bilkura horretan gehiengoak onespina ematen badu, Jaurilaritzak aldaketa puntuala onartu ostean udalak behin betiko onartu dezake.

U. Salterain (EHNE):

“Batzordeko berdinketak erakusten du beharrezkoa dela galdeketa egitea”

Unzalu Salterain EHNE-ren ordezkari eta Kaleartean plataformako kidearen iritziz, Muruetako lursailaren birsailkapen proposamenak aurrea egin duen arren, “ez dago gehiengo bat proiektu horren alde”. “Alkatearen botoak hautsi duen berdinketa bat gertatu da batzordeko bozketan, eta horrek erakusten du beharrezkoa dela

gaiaren inguruko herri galdeketa bat egitea”, dio Salterainek. Bere ustez, “triste da enpresa batek sentsibilitate handiagoa erakutsi izana herritarren iritziarekiko —proiektuak eragindako zalapartaren ondorioz denda lursail horretan zabaltzeko asmoa bertan behera utzi du enpresetako batek—, gure udal gobernuak baino”.

Batzordearen osaketa

Proiektua babestu berri duen Hirigintzako Aholku batzorde hori herri borondatearen isla dela zalantzan ipini zuen, bestalde, EH Bilduk, joan zen martitzeneko udabatzan. Aholku Batzordearen osaketaren inguruan hausnartu beharra dagoela berretsi zuen Navarro alkateak ere: “Batzordeek politikarion eraginetik libreago jarduteko moduak bilatu behar ditugu”.

Egunero zabalduko dute Gerediagako foru zelaia

Tokiaren historiari buruzko panelak ipini dituzte

ABADIÑO I.Esteban

Datorren egunean, 11:30ean egingo dute Gerediagako foru zelaia musealizatzeko burutu dituzten lanen aurkezpena, Gerediagako San Salvadore ermitan egingo duten ekitaldian. Imanol Larrinagak egindako irudi historikoen marrazkiak dituzten informazio panelak ipini dituzte, besteak beste. Aurrerantzean egunero zabalduko dute ingurua, leku hori eta bere historia ezagutzera emateko.

Besteak beste, Jose Luis Navarro Abadiño alkateak, Nerea Mujika Gerediaga Elkarteko presidentek eta Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak parte hartuko dute uztailearen 28ko ekitaldian.

Foru zelai horretan egin zizuten, gutxienez sei mendez, Durangoko Merinaldeko Batzarrek, eta Bizkaiko Batzar Nagusien Osoko Batzar batzuk bertan egiten dituzte gaur egun.

Jon Irazabalek eta Imanol Larrinagak bisitaldi gidatua eskainiko dute aurkezpen egunean

Uztailearen 28ko aurkezpen ekitaldi horretan, Jon Irazabal Gerediagako kide eta ikertzaileak eta Imanol Larrinagak bisitaldi gidatua eskainiko dute foru zelaian zehar.

Udalak akordioa berritu du Udalsareagaz

IZURTZA J.D.

Udalsareagaz zuen akordioa berritu du udalak. Azken udalbatzarrean EH Bilduk eta EAJk aho batez onartu zuten erabakia. Udalsarea jasagarritasunaren alde lan egiteko konpromisoa duten udalen arteko sarea da.

Udalsarean jarraituta hainbat konpromiso hartu ditu udalak. Esaterako, Tokiko Agenda 21 ekimenak burutzen jarraitzea, bai eta udalerriko garapen jasagarria sustatzea ere, proiektu horren arduraduna eta ordezkaria izendatuz. Udalsarean esparruan informazioa emateko eta esperientzia interesgarriak partekatzeko konpromisoa ere hartu dute.

Villanuevak jaso du herriko saria Argazki Rallyan

ZALDIBAR I.Esteban

Uztailearen 3an burutu zuten Zaldibarko Ilargi argazki taldeak antolatzen duen argazki rallyaren XXXIII. edizioa, eta joan zen zapatuan, herriko jaien barruan egin zuten sari banaketa ekitaldia.

Antonio Valencia donostiarrak izan da aurten argazki rallyaren irabazlea, eta Donostiara joan da bigarren saria ere: Jose Angel Amuchastegiri eman diote. Mikel Zengotita azkoitiarrak jaso du hirugarren saria, eta haren seme Eneko Zengotitak, gazteena. Azkenik, herriko saria Antonio Villanueva argazkilariari eman diote.

Aurtengo lehiaketan 16 argazkizalek hartu dute parte.

anboto

komunikabideak
Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa:
946 232 523
Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2016ko uztailearen 22a
14. urtea - 642. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Itxaso Martinez de
Arenaza Yarza eta Nagore
Txintxurreta Isasi.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
eta Maialen Zuazubiskar
Gallastegi.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:



“Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua”

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek
Bizkaiko Foru
Aldundiaren
laguntza jaso du



Herri galdeketak egin gura ditu Elorrioko Udalak etorkizunean

Herri galdeketak egiteko ordenantza bat lantzen dabilta udalean



Herritarrek ere eskatu ahalko dute galdeketak egitea.

ELORRIO M.O.
Herritarren partaidetzarako pauso garrantzitsua emango du Elorrioko Udalak udazkenetik aurrera. Izan ere, herri galdeketak egiteko ordenantza bat lantzen dabilta; zirriborroa beste alderdiei bidali die EH Bilduko gobernu taldeak, eta ekarpenak jaso ostean, udazkenean onartzea espero dute, Idoia Buruaga alkatearen esanetan. “Herriarrei hitza emateko eta parte hartzeko beste tresna bat edukitzea da gure asmoa”.
Ordenantzaren bidez, galdeketak egin gura ditu udalak etorkizunean. “Legealdi honetan herri galdeketa bat baino gehiago egitea gustatuko litzauguke”, dio alkateak, oraindik gaiak zehaztu barik dauden

arren. Beraz, herrian eragina eduki dezaketen proiektuen inguruan bozketak antolatuko dituzte, “eztabaida dagoenean edo galdeketaaren premia ikusten denean”.

Herri ekimenak
Bestalde, herritarrek eskura edukiko duten tresna izango da ordenantza. Herri ekimenen bidez galdeketak eskatu eta antolatu ahalko dira, ordenantzan ezarriko den gutxieneko herritar kopuru batek exijitzen badu.
Gure Esku Dagok etorkizun politikoaz galdeketa iragarri du 2017rako, baina Buruagak esan du arazoak egon direla beste herrietan galdeketa horiek udalen bidez garatu ahal izateko.

Buruaga: “Legealdi honetan galdeketa bat baino gehiago egitea gustatuko litzauguke”

Prest dituzte Argiñetako jaiak, abuztuaren 5ean hasteko asmoz

ELORRIO M.O.
Hilaren 8ra bitartean, arrakasta handikoak izan ohi diren afari eta bazkariak izango dira jaietako osagai nagusi.
Egunero eskainiko dituzte afariak, 20:30etik aurrera. Entsalada, txuleta, piperrak, odolostea, txorizoa... makina bat jaki dastatu ahalko dira afarietan. Horrez gainera, abuztuaren 6an Kofradi bazkaria egingo dute, eta 8an paella jana.
Zelan ez, erromeriarik ez da faltako. Jaien lehenengo egunean kaixo taldeak joko du, eta zapatuan Lotxok. Domekan bertsolarien txanda izango da, eta astelehenean Dj Alex ekarriko dute musika ipintzeko.
Bolo txapelketa ere egingo dute 6an, 23:30ean, eta 300 euroko saria egongo da jokoan.

Udala ur deposituak konpontzen dabil

Aurrekontuko inbertsiorik esanguratsuena da

GARAI M.O.
San Migeleko eta Trumoitteko ur deposituak konpontzen dabil udala, maiatz amaieraz geroztik. 2016ko udal aurrekontuko inbertsiorik esanguratsuena ur saneamendua berrizteko helburuz egin dute, eta horren barruan kokatzen da deposituen konponketa.
Deposituen obra uztailean edo abuztuan amaitzea espero dute udalean. 42.000 euro inguru

ruko inbertsioa egin dute, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntza lortu dute, 28.400 eurokoa.
42.000 euroko inbertsioa egin dute, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntza lortu dute

Santa Ana eguna ospatuko dute jubilatuek deituta

Meza eta bazkaria egingo dituzte hilaren 26an

MAÑARIA M.O.
Ursula Donea jubilatuen elkar-teak Santa Ana eguna ospatzeko deialdia egin du datorren martitzenean, hilaren 26an. Meza eta bazkaria antolatu dituzte ospakizunerako.
Amama eta aititen egun lez hartzen dute Santa Anakoa, eta horregatik prestatu dituzte ekintzak Mañariko nagusiek. Meza 13:00etan egingo da, eta ostean bazkaria, 14:00 inguruan.

Bazkarian parte hartu gura dutenek 15 euro ordaindu beharko dituzte elkarteko bazkide badira. Bazkide ez direnek, oster, 20 euro ipini beharko dituzte.
Bazkarian parte hartu gura dutenek 15 euro ordaindu beharko dituzte elkarteko bazkide badira

**2016-2017**
IKASTURTEKO IKASTARO ESKAINTZA

LANGILEENTZAT
DOAKO IKASTAROAK
HOBETUZ

INFORMAZIOA eta IZENA EMATEA
www.ibaizabalikastola.org · 94 621 58 77 · ikastaroak@ibaizabalikastola.eus
IZENA EMATEKO EPEA: IKASTAROA HASI BAINO ASTE BAT LEHENAGORA ARTE

IKASTAROAK	ORDUAK	HASIERA DATA
PROFESIONALITASUN ZIURTAGIRIA		
“Intervención en la atención higiénico alimentaria en instituciones” (MF1017_2)	70	2016ko irailak 26
Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren sustapena (MF1026_3)	50	2016ko urriak 17
Enplegurako prestakuntza-ekintzen programazio tekniko (MF1442_3)	60	2017ko urtarrilak 30
ESKAINTZA IREKIA		
Sare Sozialak enpresaren komunikaziorako tresna	20	2016ko azaroak 7
Hezkuntzarako google tresnak eta web aplikazioak	20	2017ko urtarrilak 11
Psikomotrizitatea nagusientzat	20	2017ko urtarrilak 12



Ibaizabal Ikastola Intxaurren kalea, 54. 48200 DURANGO



Eszerretik eskumara: Marina Berrosteigeta, Jon Lasuen, Bixenta Goyoaga eta Maria Angeles Ortiz de Zarate Andikona plazan bonbardaketaren harira Nestor Basterretxeak egindako eskulturaren aurrean.

“Nork pentsatuko zuen, ba, bonbak jaurtitzera zetoze!”

Bonbardaketa bizi izan zuten lau otxandiarrek egun beltz hartako gomutak partekatu dituzte



Andikona plazako irudia bonbardaketaren ostean.



Udaletxe pareko plaza, eta atzealdean eliza.

OTXANDIO J.Derteano

Gaur laurogei urte, 1936ko uztailearen 22an, jaietan zeuden Otxandion. Goiz lasaia zen, eta otxandiarrek beren zereginetan zebiltzan hara eta hona. Egia da Bilbotik etorritako milizia armatu bat herrian zegoena, lau egun lehenago altxamendu militarra hasitako frankistak Arabatik hurreratu zitezkeelako, baina ez zen berehalako gudarik aurreikusten. Beraz, otxandiarrek normaltasunez ekin zioten egunari. Inork ezin zezakeen aurreikusi gainera zetorkien sarraskia; eta are gutxiago uste zuten arriskua zerutik etor zitekeela, ez zegelako aurrekaririk. Horregatik, Breguet 19 modeloko hegazkin biren burrundara sumatu zutenean ez zen inor aztoratu. Bandera errepublikarrekin atonduta, esku-orriak banatzera zetoze! uste izan zuten, beste hainbatetan bezala. Jon Lasuenek (1921, Otxandio) lasai asko jarraitu zuen kalean gora aitzak agindutako enkargua egiteko. Edateko ur bila irten behar zuten Maria Angeles Ortiz de Zaratek (1926, Otxandio) eta bere amak, eta arduratu gabe ekin zioten bideari. Baina ez ziren hegazkin errepublikarrak, eta karga hilgarria zekarten. Otxandiokoa Gerra Zibileko lehenengo bonbardaketa izan

zen, eta denak ezustean harrrapatu zituen: “Nork pentsatuko zuen, ba, bonbak jaurtitzera zetoze!” gogoratu du Ortiz de Zaratek buruari eraginez. Honakoa bonbardaketa hartako kronika da, egun izugarri hura bizi izan zuten lau otxandiarren oroitzapenek gidatuta.

Goiz lasaian, burrundara

Durangotik Otxandiorako sarreraren dagoen baserri batean bizi zen Bixenta Goyoaga (1927an jaioa). Bederatzi urteko neskatila ataritik irten eta Andikona plazarantz abiatu

M. A. Ortiz de Zarate:
“Bonba bat zer zen ere ez genekien. Inuzente harrrapatu gintuzten”

zen goiz hartan, zerua oraindino isil-isilik zegoela. Une hartan bertan Jon Lasuen herriko okindegi batean zegoen, aitzak egunkaria erosteko enkargua emanda. Eguneke berriak irakurri eta mendira paseatzera joateko asmoa zuten lagun batzuekin. Orduan aditu zuten, lehenengoz, abioi bien etorrera, 09:00 edo 09:30 inguruan. “Teila-tuen gainetik igarotzen ziren”, gogoratu du Lasuenek. Ortiz de

Zarate etxera bidean zetorren, baldekada bi ur zekarren bere amaren atzetik. Abioien joan-etorriak ez ziren atentzio berezirik deitu: “Esku orriak eta bota ohi zituzten, eta horretara zetoze! uste genuen”. Bazkaria prestatzen zebiltzan milizianoek ere beren zereginetan jarraitu zuten Marina Barros-teguetaren (1936an jaioa) arabera. Hiru hile eskas zituen egun hartan, eta gerora bere gurasoek kontatutakotik daki heriotzatik zein gertu egon zen, plaza ondoko etxebizitza batean bizi zen eta.

Bonbak eta sarraskia

Andikona plaza izan zen bonbardaketaren epizentroa. Zergatik han? Milizianoak Santa Marina elizan kokatu ziren, eta gehienak han inguruan zebiltzan: “Nik uste dut bonbak goiko plazarako zirela; baina batek daki, ba. Beharbada haizeak eramanda-edo, Andikonan erori ziren”, dio Lasuenek logikaren bat aurkitzeko ahaleginetan. “Baina miliziano batzuk Andikona plazan zeuden, bazkaria prestatzen, eta igual horien bila joango ziren”, zehaztu du Ortiz de Zaratek.

Batera zein bestera, hiru-lau kiloko bonbak jaurti zituzten. Izua nagusitu zen ustekabeko eraso haren ostean: “Lehenengo aldia zenez, inuzente harrrapatu gintuzten. Bonba bat zer zen ere ez genekien. Ez genuen horrelakorik pentsatzen”, dio Ortiz de Zaratek. Bonbek ama eta Bittor neba zelari hil zituzten ikusi zuen: “Eta niri ezer gertatu ez. Ez dakit. Ez zen nire ordua izango”. Lasuen korrika batean hurreratu zen plazara, eta aita lu-

rrean aurkitu zuen, hanka biak moztuta, eta hil egin zen. Anaia biak eta hiru lehengusu ere hil egin zitzaizkion: “Ikaragarria zen. Hildakoak han lurrean sakabanatuta... Aitak egunkaria erostera bidali ninduen, eta horregatik nago bizirik. Minutu bi geroago gertatu izan balitz, bertan hilko nintzen”. Andikona plazara bidean zihoan Goyoaga ere patuaren karanbola batek salbatu zuen: “Amak deitu zidan etxetik. Bueltatzeko esan zidan, niretzat errekadu bat zuelako. Dei horrek salbatu ninduen”. Denborarik galdu barik “Gerixara joan ginen ari-neketan, eta han eman genuen eguna”. Berrostegietak, aldiz, memorian ondo gordeta du gerora aitak egun hura zelan definitzen zion: “Horrelako zerbait berriro ikustea baino, hiltzea gurago zuela esan ohi zidan”.

Beste asko bete-betean harrrapatu zituen bonbardaketak. Zauritu asko egon ziren, eta 61 lagun hil ziren. Gaur egun, Andikona plazan kokatutako burdinazko xafla batek hildako guztien izenak jasotzen ditu.

Geratu ala alde egin?

Bonbardaketaren ostean gerrako fronte handi baten erdian zegoen Otxandio: “Gehienek herritik joateko erabakia hartu zuten”. Goyoagatarrentzat egoera jasangaitza bihurtu zen. Gurdia ahal zutenagaz bete eta Bilbora joan ziren familiako baten etxera. Frankistak Bilbora hurreratzen zihoazen heinean “handik ere ospa egin behar izan genuen”. Baina, orduan, ez zuten nora joan. “Beste askok” egin moduan Kantabriarantz jo eta Torrelavegan amaitu

J. Lasuen: “Aitak egunkaria erostera bidali ninduelako nago bizirik; minutu bi geroago, hilda nengoke”

zuten. Eta han euren garraio-bidea etxebizitza bihurtu zuten: “Aitak, amak eta hirurok gurdian azpian lo egiten genuen”. Otxandiotik bederatzi abelburugaz irten zen familiari bi baino ez zitzaizkion geratzen handik denbora batera herrira bueltatu zirenean. Etxea “hondatuta” aurkitu zuten, eta dena berreraikitzea egokitu zitzaien.

Lasuen bonbardaketaren egunean joan zen herritik. Aita udaletxeko idazkaria zen, eta alkateak auto bat ahalbidetu zion familiari Bilbora joateko. Gaur egun ere Bizkaiko kapitalean bizi da. Orduan, izeko batek bere etxean hartu zituen, Zazpi Kaleetan: “Gerora lanean hasi ginen, baina hasieran ez geneukan ez dirurik ez jateko ezer”.

Amak, noizerik noizera, Otxandiorako osteratxoak egiten zituen, baina Jonek 40ko hamarkadan hasi zituen Otxandiorako joan-etorriak. 94 urte-gaz oraindino ere badiraute-nak. Opel Corsaren bolantean ez du laguntzarik behar Bilbo-Otxandio ibilbidea egiteko.

Berrostegietaren familiari Otxandiotik joateko gomendioa eman zion orduko alkateak. Aita gerrarako errekrutatu aurretik Arratiara alde egin zuten: “Ezer barik joan ginen, aldean generamanagaz bakarrik. Ondoren, lehengusina

M.Berrostegieta: “Aitak esan ohi zidan, horrelako zerbait berriro ikusi baino, gurago zuela hiltzea”

B.Goyoaga: “Errekadu bat zuela-eta bueltatzeko esan zidan amak. Dei horrek salbatu ninduen”

batek erropak-eta ekarri zizkigun astoagaz”. Urte bi han eta beste bi Bilbon eman zituzten. Ondoren, Berrostegietak lau urte zituela, Otxandiora itzuli ziren, eta aitak bere ofizioari ekin zion berriro.

Ortiz de Zarate izan zen laurretatik Otxandion geratu zen bakarra: “Gure etxea osorik geratu zen eta, ama eta neba hilda, aitagaz bertan geratzea erabaki nuen”. Aurrerantzerako ondo ikasia zuten ikasgaia: “Aeroplanoren bat entzuten genuenean, ganaduaren kortara sartzen ginen babes bila”.

Oroimena

80 urte joan dira Otxandio bonbardatu zutenetik. Gaur bertan egun hura gogoratzeko ekitaldia dago Andikona plazan. Bonbardaketa eta osteko gerra zibila bizi zituzten otxandiarrak jaiei hasiera emateko txupinazoko protagonistak ere izan ziren. Udaletxeko balkoitik jarraitu zuten ekitaldia, eta santamañei hasiera eman zien txupina piztu zuten.

Honek guztiak memorian galdutako gomutak berreskuratzeko balio izan diela uste duena oker dabil. Ez dute ezer berreskuratzeko beharrik, sekula ez dutelako ahaztu Ortiz de Zaratek garbi azaltzen duenez: “Andikona lehenagoko moduan gogoratzen dut, handik zihoan erreka eta guzti. Eta ondoren, bonbardaketa, hildakoak... egun hura oraintxe biziko banu bezala irudikatzen dut buruan”.

Lorratzen Mapa: memoria bizirik mantentzeko ibilbidea

Gaur egingo dute lehen bisita gidatua, frankismoaren hainbat lekukogaz

DURANGALDEA M.O.

Bonbardaketak, gerrak eta frankismoak herrian eragin-dakoa erakusteko asmoz, Lorratzen Mapa deituriko ibilbide bat prestatu du Otxandioko Udalak, zazpi gunetan banatuta. Informazio-panelak ipinita, etorkizunean zapalduen memoria bizirik mantentzeko ibilbide bat izango da. Gaur egingo dute lehenengo bisita

gidatua, eta berezia izango da, hainbat lekukoren bizipenak zuzenean entzun ahalko direlako. 17:00etan gaztelaniaz emango dute informazioa, eta 18:30ean euskaraz.

Zazpi gai, zazpi gun

Zazpi gai jorratuko dituzte, beste hainbeste gunetan: Andikona plazako bonbardaketa; erasoaren ostean herrian sor-

tu ziren babeslekuak; Eusko Gudarostearen komandantzia kokatu zen udako etxea; sukalde zein eskola bihurtu zen bolalekua; fronteko informaziorako garrantzitsua zen Uribarreneko zubia; gerrako egunen erakusle izan zen plaza; eta kolpisten eskutik, frankismoaren menpe lau hamar-kadatan geratu zen udaletxea.

20:00etan, erregimen faxistaren biktimak oroitu eta omentzeko ekitaldia egingo dute

Beste ekitaldiak

Bisita gidatua oroimen ekitaldietako bat da, ez bakarra. Andikona 1936 elkartearen eta Frankismoaren aurkako euskal kereilako plataformak lagundu dituzte ekitaldiok. Gaur, 18:00etan, frankismoa gaitzesteko pleno berezia garatuko dute Andikonan bertan, eta 20:00etan, erregimen faxistaren biktimak oroitu eta omentzeko ekitaldia egingo dute. Domekan, hilak 24, bonbardaketan hildakoei omenaldi herrikoia egingo diete eguerdian, 13:00etan.



Panelak zazpi gunetan ipini dituzte. Andikonan hasten da ibilbidea.

Seme kutunaren izendapena kendu diote Salas erasotzaileari

Bonbardaketa egin zuen Salas militarra Urduñako seme kutuna zen

DURANGALDEA M.O.

Frankismoan, 1942an, Urduñako seme kutunaren izendapena eman zioten Angel Salas militarri, Otxandioko bonbardaketan parte hartu zuen erasotzaileari. Otxandioko oroimen ekitaldien harira, Urduñako udalak izendapen hori kentzea erabaki du, beste titulu batzuekin batera.

1936ko uztailaren 18an estatatu kolpea jo zuten Afrikako gerran prestatu ziren faxistek, baina ez zitzaien nahi bezala atera. Madril eta beste zenbait hiri garrantzitsu ez zuten kontrolpean edukitzerik lortu. Horrela, gerra hastea erabaki zuten, eta testuinguru horretan kokatzen da Otxandioko

bonbardaketa, gerran zibilen aurka egindako lehena.

Andikonako sarraskia

Uztailaren 22an, 09:00etan hegazkin bi irten ziren Logroñotik (Errioxa), eta kolore errepublikarrak margotuta zituztela, Otxandiora hurreratu ziren. Angel Salas zen eurentariko bat, bere anaia historialariak geroago publikatu zuenez. Bonbak jaurtitzen hasi, eta esku-orriak zirela uste zuten herritar askok. Andikonan sarraskia eragin zuen, eta Picassoren Guernica lako panorama beldurgarriaz informatu zuten garaiko kazetariak. 61 lagun hil zituzten; 45, gutxienez, zibilak.

Franco eta Molaren lotura

Salas ez zen edonor, Franco eta Molaren arteko lotura lanak egiten zituen-eta, Jon Irabazal ikerlari iurretarrak *Otxandio Gerra Zibilean* liburuan kontatzen duenez. Zigor Olabarriak *Gerra Zibila Otxandion* ikerketan dio, Molak Francoren bila bidali zuela Salas Andaluziara kolpea eman ondoren, baina diktadorea ez zen heldu Afrikatik, kolpea erdibidean geratu zelako. Horrela, albiste txarrak besapean, Molagaz elkartu zen Salas Logroñon, 21ean. Bizkaia beldurtzeko eta Legutio menperatzeko eraso izan zela uste da; muga babes-teko, gudariak Otxandion batzen hasita zeuden.

Ia bi milioiko isuna ordaintzeko akordio batera iritsi dira udala eta Jauregizar SL

960.000 euroko kreditua eskatu gura du udalak Berriz Susari jarritako isunari aurre egiteko

BERRIZ M.Zuazubiskar
Berriz Susari jarritako isuna dela-eta, Berrizko Udala eta Jauregizar SL akordio batera iritsi dira. Aste honetako batzordean gobernu taldekoek jakitera eman zuten, 1.823.526,84 euroko isuna ordaindu beharrean, 1.500.000 euroko ordainketa egin beharko dio udalak, epailearen

arabera, 2003an kaltetuta irten zen Jauregizar SL enpresari.

Anbotok edizioa itxi duenean, plenoa amaitu gabe egon den arren, gobernu taldekoek aurkeztu duten proposamena onartzea aurreikusten da, EAJk baitu gehiengoa.

Beraz, okerrik ezean, Berrizko udalak uztailean, abuztuan

eta irailean 300.000, 400.000 eta 750.000 euroko ordainketak egin beharko dizkio, hurrenez hurren, Jauregizar SL enpresari.

Gobernu taldekoek aurkeztutako ordainketa planean jakitera eman dutenez, 960.000 euroko kreditua eskatuko du udalak ordainketa prozesuarekin aurrera egiteko, 2016ko inbertsioetarako

udalak eskatu dezakeen gehie-nezko kopurua.

EH Bilduko kideek, berriz, isuna herriak ordaintzea "onar-tezina" dela adierazi dute. Hauen hitzetan, "Gobernu taldekoek erantzuleak aurkituko zituztela esan zuten, baina, ez dute horrelakorik egin. Isuna onartu dute, eta kito".

Ekintzaileek 4.000 eurora arteko laguntza jaso dezakete

ZORNOTZA J.Derteano
2016. urtean enplegua sustatzea helburu duten diru-laguntzei laguntza-lerro berri bat gehitu diote aurten. Langabezian dauden eta negozio edo enpresa berriak sortzen dituzten ekintzaileei bideratuta daude. Gehienez, 4.000 euroko diru-laguntza jaso daiteke. Diru hori gizarte segurantzako gastuetarako edo burutuko dituzten jarduerako material teknikoa eskuratzeko erabili daiteke.

Lantokia Zornotzan duten eta herriko langabeak kontratatzen dituzten enpresa edo erakundeek ere laguntzak jaso ditzakete. Esaterako, langabeak kontratatzen dituztenek zein aldi baterako kontratuak behin betiko bihurtzen dituztenek 4.000 eurora arteko laguntza jaso dezakete.

Ekintzaileek zein kontratatzen direnek Zornotzan errol-datuta egon behar dute azken 5 urteetan etenik gabe edo azken 15 urteetan jarraian ez bada ere.



Berrizko udalbatzako kideak.



Berriz Zergatik' plataformako kideak protestan.

Elikadura ekologikoak interpretazio zentroa du

Erakusketa autogidatua ireki dute Jauregibarrian

ZORNOTZA J.Derteano
2014az geroztik Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak (ENEEK) Zornotzako Jauregibarrian du egoitza. Orain, aste honetatik aurrera, toki bereko espazio batean nekarazitza ekologikoaren gaineko interpretazio zentroa ireki dute.

Atalka banatuta, elikadura ekologikoko hainbat jardueren gaineko azalpenak jaso daitezke. Erakusketa autogidatua

da, eta atal bakoitzean pantaila elektronikoen bidez jaso daiteke informazioa.

Askotariko ordezkari politikoak batu ziren aurkezpena. Bittor Oroz Eusko Jaurlaritzako sailburuordeak azpimarratu zuenez, azken urte bietan %38 gehitu da elikadura ekologikoko eragileen kopurua (378tik 525era) eta epealdi berean %85 igo da sektore honetako fakturazioa: 7 milioi eurotik 13 milioi eurora.

ZORNOTZA J.Derteano
Karmengo jaiak bigarren asteburuaren atarian daude. Domeka gauean, 22:00etan, aurten bultzada berria ematen saiatu diren danborrada hasiko da. San Pedro kalean hasi eta Herriko plazan amaituko da.

Aurten zuzendari aldaketa eman da danborradan. Iban Ibarretxe ez du jarraituko, 20 urtez ibili ostean. Joan zen asteko barikuan egindako udalbatzarren amaieran, Ibarretxe bertan zela, alkateak esker oneko mezua irakurri zuen udalbatzar osoaren eta herritarren izenean eta urrezko intsignia jarri zion.

Domekan, 12:00etan, kontzertu benefikoa bat ere badago, Bizkaiko Orkestra Sinfonikoak Zornotza Aretoan eskainiko

Danborrada eta kontzertu benefikoa jaietan, etzi

Ibarretxe udalerriko urrezko intsignia jaso du

duena. Batutako dirua Euskadiko Stop San Filippo elkarteari emango diote. Amaieran zozketak egingo dituzte: Fito Cabra-

lesen txapel bat, Xabi Etxeitak emandako kamiseta eta baloia, eta Jose Javier Lacalle 'Laka' artistaren margolana.



Ibarretxe, erdian, udalbatzarra osatzen duten zinegotzi denekin.

hitz

liburudenda

artekalea 14 durango 946 810 776

info@hitzliburudenda.com

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

ABADIÑON, GEREDIAGA AUZOAN SALBADORE 2016 Jaiak



ABUZTUAK 5, OSTIRALA

20:00etan “Donien Atxa” jaso eta txapligu eta trikiti doinuekin jai ei hasiera ematea.

21:00 aldera jai-batzordeak EUSKAL OKELAZ egindako gisatua banatuko du jai eremura joandako guztien artean.

22:00etan “PURO RELAJO” Musika taldearekin erromeria.

ABUZTUAK 6, LARUNBATA

12:00etan Meza.

Meza ostean, ohi denez aureskua eta atzeskua dantzatuko dira.

13:00etan “IGEL TXAPELKETA”. Parte hartzeko euro bat ordainduko da eta errifarako txartela emango zaie.

Goizean zehar, paella txapelketa. Paella-ontziak 14:00etan aurkeztuko dira.

Egunean zehar, Lander eta Ainize trikitilariak izango ditugu jai gunea alaitzen.

17:00etan, “BRISKA TXAPELKETA” Parte hartzeko bikoteko 8 euro. Partaideei errifarako txartela emango zaie.

18:30ean “ASTO LASTERKETA”

19:30ean “TORTILLA TXAPELKETA” Parte-hartzaile guztiei piperrak banatuko zaizkie. Jai batzordeak EUSKAL TOMATEAZ prestaturiko entsalada eta ardoa jarriko ditu, plazan afari-merienda egingo dutenen artean.

22:30ean, BERTSOLARIAK:

- Amets Arzallus
 - Maddalen Lujanbio
 - Andoni Egaña
 - Jon Maia
- Gai Jartzailea, Amaia Agirre.

24:00etan, erromeria “LUHARTZ” taldearekin.

ABUZTUAK 7, IGANDEA

12:00 Meza.

Meza ostean “HAMABI HARRI” dantzarien eta irlanderen dantza saioa.

Goizean zehar “BAKAILAO TXAPELKETA” pil-pil erara: Aurkeztu eta sari barik geratu diren guztiei botila bana txakolin emango zaie. Kazuelak 14:00etan aurkeztuko dira.

13:00 aldera, jai batzordearen txosnan, kangrejoak banatuko dira.

17:00etan, “MUS TXAPELKETA” Parte hartzeko bikoteko, 10 euro jarriko dira. Bikoteari errifarako bi txartel emango zaizkio.

18:00etan, “UMEEN JOLASAK” Joko kooperatiboak lagun hartuta. Jokoak denentzat, sariak denentzat.

19:00etan, “Karabinaz Tiro” txapelketa. Parte hartzeko euro bi jarriko dira eta, errifarako txartelak emango zaizkio. Irabazleak, saritzat, karabina eskuratuko du.

20:00ean “Erromeria” Ansorregi eta Larrañagarekin.

21:00etan, “ERROMERI AFARIA”. Afal ostean, Kolorietako suak. Goizaldean, 01:00etan, jaien aldeko errifaren zozketa eta jaien amaiera.

ARGAZKI ERAKUSKETA

Salvadore egunean eta Igandean, auzoko hainbat argazki jarriko dira ikusgai. Hamabi Harrik urtean zehar egindako ekitaldietan ateratako argazkiak ere ikusi ahal izango dira.

Oharrak

Aurten ere jaien aldeko errifa aterada, eta txosnan egongo da salgai. Jai batzordea ez da jaietan gerta daitezkeen ezbeharren erantzule egingo.

Aurtengo jaietan ere, txosnan kamisetak egongo dira salgai!

ANTOLATZAILEA:

Gerediaga auzoko jai batzordea.

UDAKO JAIALDIAK **UZTAILA**
www.musikaire.eus
 22/ **LA YEGROS**
 23/ **AUDIENCE "JAI ALAI BLUES"**
 24/ **MIKROANTZERKIA**
 29/ **QUIMI PORTET**
 30/ **IZAKI GARDENAK**
 31/ **GREG IZOR & THE ROMANTICOS**



ELORRIO
**MUSIK
 AIRE 16**

antolatzaileak



ludomusikak



laguntzaileak



antolatzaileak



antolatzaileak



antolatzaileak



300.000 euro padelerako, eta eraikin bat erosteko 600.000

Udal euskaltegiaren eraikina erosiko du udalak, Azterlanegaz adostuta



Landakon daude padel pistak, eta inbertsioagaz beste hiru egingo dituzte.

DURANGO M.O. Durangoko osoko bilkuran, martitzenean, inbertsio sendo batzuk egitea onartu zuten. Batetik, 300.000 euro erabiliko dituzte padel pistak berrantolatzeko, eta, bestetik, 600.000 euro gastatuko dituzte udal euskaltegia dagoen eraikina erosteko. Hiru tenis pista eta padeleko bi daude Landakon. Eguno beharrianak ikusita, tenis pista bat padeleko hirutan bihurtzea da egitasmoa. EAJk, EH Bilduk, PSE-EEK eta PPK babestu zuten erabakia. Oroko-

rrean, guztiek adierazi zuten aldaketa egiteko beharrian dagoela, eta padel klubekin horrela adostu dutela. Herriaren Eskubidea abstenitu egin zen, “inbertsio garestia” dela baloratuta, eta udalean “beste gai batzuk lehenetsi” behar direla nabarmenduta. EH Bilduk, alde agertu arren, inbertsioa egiteko “beste une bat” hobe litzatekeela onartu zuen. 80 lagun dabilta padel ikas-taroetan, eta gehiago ezin hartu daude, leku faltagatik. Gainera, klubak ere sortu dira herrian.

Azterlan eta udala Euskaltegiko eraikina erosteko inbertsioa, Azterlan eta udalaren arteko akordio bat da. Izan ere, Azterlanek Aliendalden duen instalazioa handitzeko beharra ikusi du, eta udalaren lur bat hartu du. Trukean, Maristen ondoko egoitza jasoko du udalak, baina eremu bien arteko aldea ordainduz. 600.000 euro gastatuko ditu, guztira. Orain arte, udalak alokairuan hartuta zeukan eraikina. Erabaki honetan, EH Bildu eta Herriaren Eskubidea abstenitu egin ziren.

Merkealdien kartelen %52 gaztelania hutsez dago Durangon

DURANGO M.O. Durangoko Alde Zaharreko eta erdiguneko 84 dendatan azterketa bat egin du Berbaro elkarteak merkealdien inguruko propagandan euskararen pre-

sentzia neurtzeko. Datuekin ez dago gustura elkartea: kartelen %52,4 gaztelania hutsez dago. Bi hizkuntzatan dituzte neur-tutako dendak %38,1ek, eta eus-kara hutsean, berriz, %9,5ek. Hizkuntza biak erabili dituzten komertzio batzuek nagusiki gaztelania erabili dute. “Euska-ra garesti ote dago? Ala Duran-gon euskaraz bizi gura dugunok ez gara hain erosle onak izango, bada?”, esan dute ironikoki.



Aztertutako erakusleihoetako bat, gaztelania hutsez.

Gasteizko lineari buruz, lantalde bat sortu gura dute udalean

DURANGO M.O. Durango eta Gasteiz lotzen dituen autobus linea berriro ezta-baidagai izan zen martitzeneko osoko bilkuran. EH Bilduk eraman zuen gaia, Arabako Aldundiak –berak du eskumena– proposatutako ordutegi aldaketaren harira. Propo-samen hori lantzeko, batzartzeko eskaera egin zuen koalizioak, eta batzar horretara alderdiak eta erabiltzaileak gonbidatzea. Gainera, orain arte aurkeztuta-ko alegazioak kontuan hartzea ere exijitu zuen EH Bilduk. Herriaren Eskubidearen alde-kotasuna lortu zuten. PSE-EEK mozio alternatibo bat aurkeztu zuen, eta horixe onartu zen, EAJren babesagaz. Arabako instituzioagaz batera

PSE-EEK mozio alternatibo bat aurkeztu zuen, eta horixe onartu zen EAJren babesagaz

lan egiteko lantalde bat sortze-ko konpromisoa hartu zuten. Dani Maezturen ustez, “EH Bilduren ekinagatik” mugitzen da gobernu taldea. Baina, al-dundi arabarragaz hartueman iraunkorra eduki dutela azaldu zuen Pilar Ríos alkateordeak.

SEI HANKAKO MAHAIA

GOIZTIDI DIAZ
EAJ

Bai baina ez... Egunotako beroa izango ote da azken osoko bilkuretan entzun-dakoen arrazoiak? Bai EH Bilduk eta bai HESku-bideak aho betez berba egiten dabie eskubide eta hausnarke-tez. Aho betez eskatzen dabie langileen egoera hobetzea, baina hitzak ekintza bihurtzerakoan... Bai baina ez, eta kontrako botoa emoten dabie lasai asko. Duran-goren alde egin behar denean ez dabie ezer egiten, eta berriro herritarrak galtzaile. Artistak dira erruberetan makilak jar-tzen, artistak Durangoren alde ez egiten. Bitxia da gainera nola aldatzen dabien jarrera baldin eta non dagozen. Halan, oposizioan zein gobernuan dauden udaletan hitzarmen nominatibo askoren alde egiten dabie, baina amanko-munazgoan kendu egin dabiez, ez dira beraien gustukoak. Ho-rregatik EAJk ozenki dio diru-laguntzak bermatu daitezela eta elkarteek Amankomunazgoan ere ez dezatela laguntzen mu-rrizketaren arriskurik izan. Gaztedi plana ere alde batera utzi dabie. Eta halan Durangal-dearen alde dagoz? Eurek baietz diote... baina ez. Durangaldea-ren etorkizunerako bidaian ha-rri-koskorrak jartzeaz gain, ez dago ezer batzuen eta besteen aldetik. Diskurtso demagogikoaren aterkipean babestuta edozer esa-teko adorea deukie. Errespetu faltaz beteriko jarreran murgil-duta, harrigarria da ikustea nola zinegotzi batek aurrean duen langilea mespretxatzen dauen. EAJk gaitzetsi egiten dauz errespetu falta guztiak, eta langi-leen duintasunaren alde egingo dau. EAJk Durango eta Durangal-dearen alde egingo dau, hori de-lako bere lehentasuna. EHBilduk eta HESkubideak bai, baina ez. EAJk jakin eta egin, bai ala bai.

DURANGALDEA ASTEON

Madalena egunean bandaren kontzertua
DURANGO > Jesús Castillejoren zuzenda-ritzapean jardungo da Durangoko Tabira musika banda, gaur, Madalena egune-ko iluntzeko kontzertuan. Durangoko Plateruen plazan izango da emanaldia, 19:30ean. Askotariko errepertorioa eskai-niko dute: auzo horren *El barrio Madale-na* ereserkia ezezik, pasodobleak, musika klasikoa eta soinu banden zatiak joko dituzte, besteak beste.

Margarita Maturanaren eguna ospatuko dute
BERRIZ > Bihar ospatuko dute Margarita Maturana (Bilbo, 1884-Donostia, 1934) Amaren eguna, Berrizko Mesedetako Misiolarien komentuan. Eukaristia egingo dute 17:00etan, eta pintxo dastake-ta egingo dute horren ostean. Ondoren, 19:30ean hasita, Berrizko San Lorentzo eta Ekuadorreko Causanacunchi taldeen dantza emanaldiak izango dira ekitaldia amaitutzat emateko.

Markeliñeren ‘Kixote’ saridun Almagron
ZORNOTZA > Markeliñe antzerki talde zornotzarraren *Kixote*, *Santxoren zora-bioa* obrak saria jaso du antzerki klasi-koaren Almagroko (Ciudad Real, Espai-nia) jaialdiko umeentzako sorkuntzen sariketari. Sariduna izan denez, asteen emanaldi bi eskaini dituzte Almagroko Principal antzokian. Nazioarteko antzer-ki jaialdi horren barruko AlmagroOff programaren barruan aritu dira.

IRITZIA

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOK ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.

> Berbaz

Alex Palacios | Dendak Bai Durangaldeko merkataritza elkartearen presidentea berria | Durango, 1979



“Azken katebegia da komertzioa, eta askok ezin izan diote eutsi”

Bederatzi urtez Zuzendaritza Batzordean egon ostean, Dendak Bai-ren presidentea kargua hartu du

> BERBAZ Aitziber Basauri

Dendak Bai merkataritza elkartearen presidentea berria da Alex Palacios. Guillermo Oarbeaskoaren lekukoa hartu du duela hilabete eskas. Krisi ekonomikoak eta kontsumo ohiturek kalte egin dute la dio berak, baina tokiko komertzio txikian erosteko ohitura bueltatzen ari dela uste du. ‘1 + izan nahi dugu’ kanpaina abiatu berri dute bazkide gehiago lortzeko. Egun, 165 bazkide dira.

Nola hartu duzu ardura berri hori?

Presidentea elkartearen aurpegia da kanpora begira, eta hor igarriko dut aldaketa. Baina, antzera batean jardungo dugu, eta errespetu pixka bat eman arren, ondo hartu dut ardura. Orain arte lez, erabakiak zuzendaritza batzordeak hartuko ditu. Zentzu horretan ez dago aldaketarik. Guillermo Oarbeaskoak 16 urte egin ditu presidentea lez —betidanik egon da zuzendaritza batzordean—, eta denbora bat da lekukoa eman gura zuela. Azkenean, nik hartu dut. Bederatzi urte daratatzen nik ere zuzendaritza batzordean.

Zuzendaritza batzordean ere egin dituzue aldaketak.

Bai. Batzuek utzi egin dute eta berriak

sartu dira. Baina, horrez gain, ordezkari kopurua gehitu dugu, gremio gehiago batze aldera. Ekintzak antolatzea, komertzioa dinamizatzea... batez ere, horretan datza gure lana, eta, zenbat eta ideia eta ekarpen gehiago jaso, orduan eta hobeto. Zuzendaritzan gremio gehiago badaude ordezkaturik, hobeto helduko gara komertzio mota guztietara. Izan ere, batzuetan, eta konturatu gabe, komertzio mota batera, ostalaritzara... jo dugu beti, beste batzuk albo batean utziz. Durangoko merkataritza-sarea hobeto islatuko dugu.

Nola ikusten duzu tokiko komertzio txikiaren egoera?

Datuen arabera, urtean 10-20 komertzio ixten dira Durangon. Egia da hainbat komertzio itxi dituztela, baina, aldi berean, beste hainbat zabaldu dira. Hainbat faktorek eragin dute egoera honetan: saltoki handiak zabalitzeak komertzio txikiak ixtea ekarri du; eta herriguneetako dendek, neurri batean, erakargarritasuna galdu dute: aukera gutxiago dagoela-eta, kanpora doa jendea erostera, saltoki handietara asko. Apur bat gainbehera doaz komertzio txikiak. Krisi ekonomikoak ere izan du eragina. Gainera, dirua heldzen ikusten azkena da komertzioa. Enpresak has-

ten dira lehenengo suspertzen, eta langileak kontratatzen dituzte. Diru apur bat gehiago ikusita hasten da kontsumitzen jendartea. Nahi izan arren, azken katebegia da komertzioa, eta askok ezin izan diote eutsi, hain doa luze krisia... Gaur egun, inor ez da aberasten komertzio battegaz. Bizirauteko baino ez da.

Hala ere, komertzio berri asko zabalitzen dira, ezta?

Egia da, baina batzuek ez dute asko irauten. Baliteke epe oso laburrerako ikuskera izatea, ez dute aurreikusi hasiera-

“Zerbitzu on bat gura dugu, eta hori komertzio txikiak ematen du”

“Ez gaude lehiaren kontra, ezin dena egin da legedia aldatu mesede egiteko”

ko urteak ez direla onak izango. Baina, komertzio berri bat zabalitzeak azterketa bat, koltxoi ekonomiko bat eskatzen du. Badira iraungipen-data dutenak ere bai: urrea erosteko dendak, adibidez. Inbertsio handia eskatzen ez duten frutategi edo ile-apaindegia ere zabaldu dira, edo modernoagoak diren denda bereziagoak.

Espezializazioarako joera dago?

Bai. Bide horretatik joan behar du merkataritzak: zerbituetan espezializatu eta hori ondo eskaini. Merkataritza elkartearen bazkide izateak lagundu diezazuke horretan: diru-laguntzen inguruko aholkularitza jaso zenezake, adibidez. Elkarre batera batzeak hainbat abantaila ditu. Bide horretan abiatu dugu orain ‘1 + izan nahi dugu’ bazkidetza kanpaina.

Abadiñon saltoki handi bi jartzeko aurrerapausoak eman dira asteon bertan. Zer deritzozue horri?

Duten eraginaz jabetzeko adibideak badiugu. Bada komertzio txikia hil egin den herririk. Horixe gertatu zen Barakaldon bertan, eta orain ematen du herria berpizten ari dela apurka-apurka. Herriak, kaleak, inor gabe geratu izan dira. Komertziorik ez badago ez dago bizitzarik, eta herriak bizirik mantendu behar direla uste dugu. Ez gaude lehiaren kontra, baina ezin dena egin da legedia aldatu norbaiti mesede egiteko. Inor badator, indarrean dagoen legediari egokitu behar ko zaio, besteok egiten dugun lez. Indarrak batu gura ditugu Abadiñoko merkatariekin ere horri denari buelta emateko.

San Fausto auzoko azken denda itxi berri dute. Auzoak husten ari dira.

Bai. San Inazio auzunean ere gertatu da. Komertzioak itxi edo lekuz aldatu dira. Bestelako komertziorik, balio komertziala ematen dizunik ez badago, ixtera edo lekuz aldatzera behartuta zaude. Durangon komertzio guztia Alde Zaharrean eta inguruko kaleetan ari da batzen. Neurriak hartu daitezke hori ez gertatzeko. Adibidez, saltoki handien aurrean edo zer gauza egiten ez utzita.

Black Friday, Gau Irekia... antolatzen dituzue komertzioa sustatzeko. Irailaren 30ean desfilea egingo duzue, ezta?

Bai. Horretan ari gara. Denetarik erakutsiko duen desfilea izango da, ez arropa bakarrik. Zerbitzu berezia egin gura da, paper-denda batek eta liburu-denda batek ere parte hartuko dute. Andra Marian egin gura dugu, eta modelo izateko castinga egin dugu Durangon; 70 bat lagunek parte hartu dute. Oso ondo joan da.

Nola ikusten duzue etorkizuna?

Tokiko komertzio txikian erosteko ohitura bueltatuko dela uste dut, hori espero dut. Kontzientziatuago gaude. Berria den guztiak erakartzen gaitu, baina, gerora zerbitzua ona ez bada, erantzun ezean... eragina du eroslearengan. Zerbitzua batoratzen dugu. Zerbitzu on bat nahi dugu, eta hori komertzio txikiak ematen du.

Hiru antzezlan laburrentzat oholtza bilakatuko dute Casajara, domekan

Mikro antzerkiaren hiru adibide eskainiko dituzte Elorrioko Musikaire jaialdian, domekan

➤ **ANTZERKIA** I. Esteban

Muerte Súbita antzezlan eskainiko dute Sonia Villamorrek eta Mercedes Lur bere kideak, domeka honetan, Musikaire jaialdiaren barruan. Casajara jauregian izango da emanaldia, 19:00etan. Beste antzezlan labur bi ere izango dira ikusgai egun horretan Elorrian: *I'm a real artist* eta *Off the Record*.

Elorrian bizi den bilbotarra da Sonia Villamor, eta Durangaldeko artistekin hainbat elkarlanean jardun izan da: ardo dastaketa artistikoetan kolaboratzen du, esaterako, Peru Magdalena, Gotzon Garaizabal eta Mikel Garaizabaleguz. Villamorrek azaldu dio ANBOTOr domekako antzerki proposamenaren berri.

Hiru antzerki obra laburren emanaldia izango da, beraz, etzikoa, Casajara jauregiakoa. Villamorrek eta Lurrek antzeztuko duten *Muerte súbita* lanak, esaterako, 15 minutuko iraupena du. “Antzerkia espazio berrietan eskaintzea, eta iraupen

laburragoko istorioak kontatzea da apustua”, dio Villamorrek, “antzerkira jende gehiago erakartzeko formularen bila esperimentatzen gabiltza”.

Yolanda García Serrano mar-drildarraren testua da *Muerte Súbita* antzezlanaren oinarria, eta tenislari biren papera jotkatzen dute Villamor eta Lur aktoreek. “Jolasean dabiltzan bi emakume gara, eta askatasunaren ingurukoa da obraren mezua”, dio antzezleak.

Oholtza gainean aktore lanetan ez eze, antzerki zuzendari rolean ere ibilitakoa da Sonia Villamor. Iaz, esaterako, *Planteamiento, nudo y desenlace* proiektuaren barruko antzezlan laburretako bat zuzendu zuen, Bilboko Pabellón 6 gunean.

Abuztu amaieran film labur batean antzezle arituko dela aurreratu du Villamorrek. Arriolako 24 Ordu Digitalean lehiaketan ezagutu zituen kideekin film labur bat grabatzea du epe laburreko asmoetako bat.



Tenislari biren paperean dihardute Sonia Villamorrek eta Mercedes Lur kideak ‘Muerte súbita’ antzezlanean.

Domekako antzerki emanaldiaz gain, beste bost kultur emanaldi ere eskainiko ditu, oraindik, Elorrioko Musikaire jaialdiak.

Kasu honetan, musikaren arlokoak dira datozen emanaldi guztiak: gaur, cumbia elektronikoa La Yegros-en eskutik; bihar,

Audience gernikarrak; eta datorren asteburuan, Quimi Portet, Izaki Gardenak eta Greg Izor & The Romantics.



Asteburu honetan eta hurrengoan sei kultur emanaldi izango dira gozagai Elorrioko Musikaire jaialdian.

Ertibil erakusketa kolektiboaren geldialdia Durangoko Museoan

Martitzenean zabaldu zuten erakusketa; abuztuaren 14ra arte egongo da bertan



Iñigo Garatu lurretako artista gaztearen eskultura lan bat da, besteak beste, bilduma horren parte.

➤ **ERAKUSKETA** I.E.

Hogei artista gazteren lana dago ikusgai, martitzenetik, Duran-

goko Arte eta Historia Museoan. Tartean, Ertibil erakusketa kolektibo honetarako hautatuak

izan diren Durangaldeko Damaris Pan eta Iñigo Garaturen obra bana ere bai. Abuztuaren 14ra

arte egingo du erakusketa ibiltari horrek geldialdia Durangon.

Bizkaiko Aldundiak hautaturiko 20 artistaren lanek osatzen dute Durangoko Museoan dagoen bilduma, sariketaren aurtengo deialdian jaso dituzten 109 lanetatik epaimahai batek hautatu dituenak.

Hirugarren aldia da Damaris Pan mallabiarraren lana Ertibilerako hautatu dutena, eta aurtengo deialdian, 61 x 50 zentimetroko ohialean olioagaz margoturiko koadro bat aurkeztu du. Artistak azaldu duenez, figurazioaren eta abstrakzioaren dikotomia gainditzeko nahia dago koadro horren atzean. Izan ere, Mikel Onandia arte kritikari durangarrak idatziriko erakusketaren katalogoan azaltzen denez, “Damaris Panek ez du margogintza irudikapentzat hartzen, baizik berezko izaera duen kanpoko erreferenterik gabeko arte autonomotzat”.

Bere lana Ertibilerako hautatu dioten lehenengo aldia da, aldiz, Garaturentzat. Teknika mistoagaz egindako *Ateak zabalik?* eskultura lana aurkeztu du Garatuk, Europar Batasunak errefuxiatuen krisiari emandion erantzun ez-moral eta lege kontrakoa kritikatzeko duena. Onandiaren berbetan, Garaturen pieza, “Europako erakundearen zatiketa estrukturalaren sinboloa da, eta bere migrazio politikaren bi aldeak nabarmentzen ditu, soilik alde batetik igarotzea ahalbidetzen duen marko-leiho gisa”.

2016ko Ertibil erakusketak Durangaldean egingo duen lehenengo geldialdia izango da hori. Bizkaiko beste hainbat herritatik igaro eta gero ere, datorren ikasturtean Durangaldera bultzatuko da erakusketa kolektiboa. Abenduaren 20tik 29ra Elorrioko Iturri kultur etxean egongo da ikusgai.



Arte Ederrak eta moda diseinua ikasi ditu Ixone Gulin (Abadiño, 1993).

“Sorkuntzari ekiteko aukera gisa ikusi nuen lehiaketara aurkeztea”

Arteshop lehiaketaren sari nagusia jaso du Ixone Gulin gazte abadiñarrak

> ARTEA Itsaso Esteban

Arteshop lehiaketa irabazi duzu. Zelan hartu duzu saria?

Ez nuen uste saria irabaziko nuenik: lehenengo aldia da sari bat eman didatena. Sorkuntzari ekiteko aukera gisa ikusi nuen lehiaketa horretara aurkeztea, izan ere, izena ematean diru-laguntza jasotzen dugu materiala erosteko. Oso inportantea da, sarritan, lanak lehiaketetara aurkezteko diru asko behar izaten baita. Gazteak izanda, ez gaude dirua galtzeko moduan...

Lehenengoz aurkeztu zara Arte Ederretako ikasleei zuzenduriko sariketa horretara?

Bai. Ikasten ibili naizen lau urteetan beti eduki dut inguruan lehiaketa horretan parte har-

tzen zuen jendea, baina unibertsitateko klaseen ostean Bilbora joan beharra zegoen lehiaketarako lana burutzeko, eta ez naiz animatu izan. Aurtan, aldiz, ez naiz hain lanpetuta ibili, eta horregatik aurkeztu naiz.

‘Tejer comunidad’ du izena saritu dizuten lanak. Zelakoa da? Bilboko Otxarkoaga auzoan dagoen aniztasunari eta jatorri desberdineko jendearen elkarbizitzari egiten dio erreferentzia izenburuak. Nire lana auzo horretako farmazia batean erakutsiko zenez, Otxarkoagari buruz asko ikasi dut, eta oso motibatuta ibili naiz horretan: oso historia interesantea du auzoak, eta hedatuta dauden aurreiritzi negatiboak gezurtatu dizkirate.

Historia horren berri auzotarrak eman dizute?

Bai. Farmaziaren jabeak kontatu zidan, adibidez, berea izan zela Otxarkoagako lehenengo far-

mazia, drogagaz jendeak zituen arazoek zelan eragin zuten auzoan zein farmazian bertan... Berak kontatutakotik joan naiz lanari norabidea ematen.

Argi zeneukan zer adierazpide baliatuko zenuen?

Sortu ahala joan naiz horri buruzko erabakiak ere hartzen. Banekien argazkigintza eta hizkuntza baliatuko nituela, adibidez, baina gero, prozesuan zehar sortzen doaz gauzak. Hasiera batean ez neukan argi zer aterako zen, eta auzoko argazki zaharrak eta mapa topografikoen figurak uztartu ditut azkenean.

Argazkigintza da gustukoen duzun arloa?

Azkenean beste forma bat hartzen duen pieza baten parte izaten dira nire kasuan argazkiak, sarritan. Internetetik edo liburutatik hartutako argazkiak baliatzen ditut, edo neuk egin eta ediziorako programekin landutakoak. Gero, argazkiaren gainean marrazten dut, edo instalazio baten parte bihurtu.

Arte Ederrak eta moda diseinuko ikasketak amaitu dituzu?

Bai, Arte Ederretako Gradu amaierako proiektua urtarri-lean aurkeztu nuen. Aldi berean, moda diseinuari buruzko Gradu osteko bat egiten ere ibili naiz ikasturte honetan. Kurtso horren amaieran ekitaldi bat egin genuen, eta beste ikaskide bat eta neu aukeratu gaituzte irail-lean geure diseinuak Bilbon eta Madrilen egingo diren erakusketetara eramateko.



Otxarkoagako farmazia bateko erakusleihoan egon da Gulinen lana.

GEURE DURANGALDEA

GARAZI MUGARZA

Ikaslea



Parentesiak

Udak Euskal Herria bete-betean harrapatu orduko -ezin esan dezakegun arren harrapatuko duenik ere-, denboran atzerako (-6 ordu) eta negu gorri-rako bidaia bati ekitea beste ideia hoberik ez zait okurritu. Urte osoa eguraldi onaren zain pasatu eta heltzeko unea iritsi denean hartu dut hegazkina arnasaldi berrien bila.

Eguneroko errutina burla egiten digula uste dugunok, beldur handia izanagatik maite ditugu egun batetik bestera leku eta ordu desberdinetan bizitzera garamatzaten uneak eta maite ditugu azken egunak gure ohiko ingurunean, bidaia etxea utzi baino lehen hasten direlako beti. Parentesi horrek uzten du aukera geure burua geure kabuz gobernatzeko kapazak ote garen eta halakoak gogoetatzeko, mundua uste baino askoz handiagoa dela ohartu eta gu uste baino askoz txikiago sentitze-ko, joateko erabakiak agian beranduegi hartzen direla baieztatu eta aurrerantzean gehiago bidaia-tuko dugula zin egiteko eta beste; gehienetan ideia efimero eta soil suertatu eta egiten dugun gauza bakarra diruaren xahutze inkontziente eta gehiegizkoa izaten bada ere. Lotsa ematen dit aitortzeak, baina ni ere banaiz arrazoi-ekin alde egin eta aitzakiekin itzultzen den horietakoa.

Hemen uda hasterako hango negu eta ohiko errutinara itzuliko banaiz ere, balia ditzagun parentesiak zein egunetan bizi garen ahazteko edo behintzat denborari neurri aski malguagoak emateko, memoria txarra omen da-eta zoriontsu izateko gakoa. Itzultzen garenean denak jarraituko du lagatako leku berean.

Uztailaren 22a, ostirala
22:00 Musika Eskola parkea
Carlo Mò & Mr Di
Awish

Uztailaren 23a, larunbata
20:00 Santa Ana plaza
Orce Nikolov Macedonia
Kriskitin Durango

uda kalean bizi 2016 san agustin kultur gunea kalean
MUSIKA ZIRKOA DANTZA ANTZERKIA

Uda honetan

PLATERUEN TERRAZAK

Egunero doako terraza zerbitzua gaueko 22ak arte

PLATERUA

Razioak
Etxeko irabiatuak
Garagardo berezien karta
Te hotza

JAIAK! GARAI + MAÑARIA + MALLABIA
2016ko UZTAILA eta ABUZTUA

GARAI
MAÑARIA
MALLABIA

GARAIKO JAIEN EGITARAUA

UZTAILAK 23, zapatua

18:00 ASTO PROBEN ERAKUSTALDIA
1. Egoitz Elordui (Berango).
2. Igor Otaolea (Berriz).
3. Maiores (Maume).

21:00 Antzerkia "THE FUNES TROUP".

23:30 Erromeria "EROKOMERIA" taldearen eskutik.

UZTAILAK 24, domeka

14:00 Jubilatuen bazkaria.

19:00 DONIEN ATXA jartzea.

Ondoren: Ezpata-dantzarien azken entsegua.

Ondoren: Lumagorri oilaskoen pintxoak dastatzeko aukera.

23:00 Erromeria "LISKER" taldearekin.

UZTAILAK 25, astelehena

10:30 Txistulari, dantzari eta agintarien kalejira.

11:00 Meza Nagusia San Migel Eleizan. Ondoren, Ohizko Santiago imajinaren prozesioa Eleizabarriraino apostoluari omenaldia eginez, agintariena eta Gernikako arbola dantzatzuz.
Ondoren: Ezpata-dantzarien saioa plazan.

18:30 Erregelen erakustaldia.
Ondoren: Kantu poteoa

23:00 Erromeria "LAJA ETA LUTXURDIO" bikotearekin

UZTAILAK 26, martitzena

10:30 Txistulari, dantzari eta agintarien kalejira.

11:00 Eleizabarrin, meza nagusia. Ondoren, Santiago imajinaren prozesioa parrokiaraino.

Ondoren: Ezpata-dantzariak plazan. Jarraian gizonezkoen erregelak eta ondoren emakumeak.

18:00 TORTILLA TXAPELKETA. Partaideek ekarri beharko dabe: sua, arrautzak, olio, kipula eta gatz.

SARIAK:

1. 80€ eta Jai Batzordeak jarritako garaikurra.
2. 50€ eta botila bat txanpan.
3. 30€ eta botila bat txanpan.

21:30 Erromeria "OBA NEUKE".

UZTAILAK 27, eguaztena

18:00 MUS TXAPELKETA. Izen ematea: 10€ bikotea.

SARIAK:

1. 80€ eta txapela.
2. 50€.
3. 30€.
4. Botila bi txanpan.

UZTAILAK 28, eguena

18:00 BRISKA TXAPELKETA. Izen ematea: 10€ bikotea.

SARIAK:

1. 80€ eta txapela.
2. 50€.
3. 30€.
4. Botila bi txanpan.

UZTAILAK 29, barikua

11:00-13:00 eta **15:00-18:00:** Haurrentzako jolas parkea frontoian.

18:30 DUATLOI TXIKIA. Ume bakoitzak bizikleta, kaskoa eta arropa eroso ekarri beharko ditu.

22:30 DJ BULL.

UZTAILAK 30, zapatua

13:30 Poteoa.

14:30 BAZKARI HERRIKOIA.

Ondoren: Herri olinpiadak eta musika.

22:00 BERTSO SAIOA:

Alaia Martin

Fredi Paia

Uxue Alberdi

Igor Elortza

Gai Jartzailea. Eneko Abasolo "Abarkas".

Ondoren: Erromeria "LUHARTZ" taldearekin.

UZTAILAK 31, domeka

11:00 Meza.

Ondoren: HERRIKO DANTZARIAK.

Ondoren: Durangaldeko Igel Txapelketa. Izen ematea 2€.

SARIAK:

1. Pernille.
2. Untxi bat.
3. Gazta bat

18:00 ASTO PROBEN ERAKUSTALDIA:

1. Partiliku Elkartea (lurreta)

2. Irazola(Mallabi)

3. Koldo Bidaurreazaga(Larrabetzu)

4. Asier Alegria(Bermeo)

SARIAK:

1. 400€ eta manta Jai Batzordeak emanda.
2. 350€ eta garaikurra Kimu Loradendak emanda.
3. 300€ eta garaikurra Jokin Arregi Indusketa Lanak emanda.
4. 275€ eta garaikurra Cumenorrek emanda.
5. 225€.
6. 200€
7. 175€.

23:00 Erromeria "ANSORREGI" taldearen eskutik.

Gauerdian: Txokolatea eta Errifaren zozketa.



Jokin Arregi eta Alazne Sarrigoitia | Trumoitte kultur elkarteko kideak | Garai

“Emozionatuta eta pozik gaude, Garaiko jaiak hasteko gogoagaz”

Bihar hasiko diren jaien berri eman dute Sarrigoitiak eta Arregik

► **ELKARRIZKETA** M. Onaindia
Txosna muntatuta dutela, jaiak hasteko prest daude Trumoittekoak. Gogotsu agertu dira elkarrizketara, eta indarra beharko dute, bai: bederatzia eguneko jaiak dauzkate aurretik. Santiago, Santa Ana eta San Inazio lotuko dituzte jai giroan. Garaiko aste nagusia, beraz. Aurten, erregelen erakustaldian neskek bakarrik egingo dute dantza, eta horixe da nobedade esanguratsuen. Zelan ez, erromeria ere protagonista izango da, herritarren eta inguruko dantzazaleen gozagarri.

Zelan doaz azken lanak? Dena prest?

Alazne Sarrigoitia: Egitaraua prest dago, eta azken gauzak egiteko ditugu: beheko eta goiko txosnak atondu, azken erosketak egin... Emozionatuta eta pozik gaude, jaiak hasteko gogoagaz. Ea eguraldiak laguntzen digun! Aste barruko ekintzetan, euria egiten badu, ez da ezer gertatzen; pilotalekura joango gara. Baina erromeria dagoen euria egiten badu, pena izango da. Momentuz ona datorrela diote.

Zenbat lagun zaudete antolatzailerik?

Jokin Arregi: Momentu hone-

tan Trumoitte kultur elkartearen hamar bat lagun gabilta. Jai egunetan, barrarako esku bat botatzen digu jendeak, eta berdin barandak edo mahaiak ipini behar badira.

Aurtengo jaiak begira, zer nabarmenduko zenukete?

J.A.: Erregelen erakustaldian, hilaren 25ean, arratsaldean, aurtengo neskek bakarrik etorriko dira. Bederatzia bikote izango dira guztira: Mañaria, Izurtza, eta Iurretakoak; Durangoko Kriskitin, Tronperri eta Txoritxu Alaiakoak; Berrizko Iremiñekoak; Galdakaoko Andra Marikoak eta Garaikoak.

A.S.: Bai, mutilak egoten direnean baino talde gehiago datoz.

Ekintza ugari ohikoak izaten dira jaietan. Baina, ba al duzue nobedaderik?

A.S.: Nobedade lez, hilaren 23an

“**Erregelen erakustaldian, 25ean arratsaldean, neskek bakarrik etorriko dira**”

antzerki bat egongo da, The Funes Troup. Emanaldi mutua izango da.

J.A.: Bestalde, egunik indartsuena 30a izaten da, Luhartz egoten denekoa.

A.S.: Aurten, gainera, egun horretan ipini dugu herri bazkaria, eta beraz, herritarrentzat egun luzea izango da. 29an ere ea jendea animatzen den Dj Bulekin.

J.A.: 31n umeen eguna izango da, eta, aurreratu ezin dugun arren, eurentzat sorpresa bat egongo da.

Eta zuei, pertsonalki, zein ekintza edo egun gustatzen zaizue gehien?

J.A.: Niri 26ko eguna gustatzen zait, Santa Ana eguna. Goizetik hasten gara martxan, eta tortillekin giro ederra egoten da. Gaurerako errementatuta helitzen gara, baina eguneko parranda ona da. Adinagatik izango da igual (barrez).

A.S.: Nik 30eko jaiak aipatuko nuke. Asko disfrutatzen dut, eta aurten agoantatzea espero dut, goizetik hasiko baikara.

Garai herri txikia da, baina jaietara jende ugari etortzen da, ezta?

A.S.: 30ean plaza beteta egoten da. Beste egunetan ere etortzen



Bihar hasiko dira Garaiko jaiak. Irudian, iaz, Donien atxa altxatzen.

da jendea, baina txarrena izaten da aurreko asteburuan Otxandiko eta Zornotzako jaiekin bat egiten duela sarritan.

J.A.: Eguraldiak ere asko eragiten du. Izan ere, oso ona eginez gero, jendea hondartzara joaten da. Bestalde, aurten 26a lan eguna da, eta beraz, batez ere herrikoak egongo gara. Baina nahikoak gara. Iurretako jubi-latuak eta ere etorriko dira (barrez).

Lehenago, kontzertuak ere antolatzen zenituzten pilotalekuan...

J.A.: Nire ustez, herri giro han-

diagoa sortzen da beheko partean. Pilotalekuak duen onena da euria egiten badu estalpe bat duzula.

A.S.: Hala ere, ez du arrakasta berdina. Iaz euriagatik pilotalekuan egin zen erromeria bat, eta jende gutxi egon zen.

Dei berezirik bai?

A.S.: Bai. Bazkari egunean herri olinpiada batzuk egitea pentsatu dugu. Jendea parte hartze- ra animatzen dugu! Bazkalos- tean dagoen animoaren arabera erabakiko dugu olinpiadak egin ala ez.

Zuen ustez, zelako jaiak dira Garaikoak?

J.S.: Herrikoia direla esango nuke, eta tradizioa nahiko ondo mantentzen dela.

A.S.: Herritarrek elkartzen garen egunak izaten dira, eta hain zuzen ere, horretarako antolatzen ditugu jaiak: herritarrek disfrutatzeko. Ni, behintzat, urte guztian aste honen zain egoten naiz.

“**Hain zuzen ere, horretarako antolatzen ditugu jaiak: herritarrek disfrutatzeko**”

MAÑARIKO JAIEN EGITARAUA

ABUZTUAK 13, zapatua

13:00 Txupinazoa, kanpai hotsa eta Pitxitxiren igoera.

14:30 Herri bazkaria
Ostean, mus eta igel txapelketa.

17:00 Zirku tailerra.

18:30 Herri kirol desafioa.

22:30 Kontzertuak:
Skakeitan
Hesian
Joxe Replay

ABUZTUAK 14, domeka

7:00 HERRI LANAK: plazako garbiketa, ostean, hamarretakoa.

11:00-14:00 Umeentzako jolasak:
Ludoteka, puzgarri handia eta puzgarri ertaina.

12:00 Zumba maratona: ume zein helduentzat.

17:00 BIKETRIAL erakustaldia
Javi Alonso bi aldiz Europako txapeldunarekin.
Oharra: parte hartzeko aukera dago.

20:00 Tortilla txapelketa.

21:30 Tortilla aurkezpena eta sari banaketa.

23:00 Kontzertuak:
The Potes
Las Tea Party

ABUZTUAK 15, astelehena ANDRA MARI EGUNA

7:00 HERRI LANAK: plazako garbiketa, ostean, hamarretakoa.

10:00 Kalejira txistulariekin.

11:00 Meza Kirikiño Abesbatzarekin.
Amaiztean, dantzariak.

11:00 Umeentzako jolasak:
Ludoteka, puzgarri handia eta puzgarri ertaina.

13:00 Herri kirolak:
Irati Astondoa, Andoni Urrutia, Uxue Ansorregi, Mikel Agirre eta umeak.

17:00 Umeentzako jolasak:
Ludoteka, puzgarri handia eta puzgarri ertaina.

17:00 Karabina-tiroa Ateneo Cinegetico
Mugarrak antolatuta.

18:00 Herriko pilota finala.

19:00 Bits jaia
Oharra: Kontuan izan umeak busti egingo direla.

20:30 Txistorrada.

22:00 Dantza alardea.

23:00 Kontzertua:
Mikel Urdangarin.

ABUZTUAK 16, martitzena SAN ROKE EGUNA

7:00 HERRI LANAK: plazako garbiketa, ostean, hamarretakoa.

11:00 Meza Kirikiño Abesbatzarekin,
amaiztean, dantzariak.

12:00-14:00 Paella txapelketa.

14:30 Paellak aurkeztu eta sari banaketa.

18:00 Briska txapelketa.

18:00 Izurtzako dantzariak.


19:00 Festa Mexikarra plazan.
Natxoak, rantxerak eta joko mexikarrak.

21:00 Mozorroen sari banaketa.

21:30 Erromeria Joxpa taldearekin.

22:30 Pitxitxiren Agurra.

7:00 HERRI LANAK: plazako garbiketa, ostean, hamarretakoa.



Ondo pasatu
Andra Mari jaietan!



MAÑARIKO UDALA



EZ EZETZ DA! JAIK ERRESPETUZ GOZATU!



Dantzariak hainbat dantza saio eskainiko dituzte.



Urdangarinek abuztuaren 15ean eskainiko du kontzertua.

Jai mexikarra, paella txapelketa eta Urdangarinen musika jaietan

Abuztuaren 16an Mexiko izango da herritarrek mozorrotzeko gaia

> JAIK J.D.

Jaiekin gozatzeko eskaintza zabala antolatu dute jai batzordeak. Esaterako, Mañaritik Mexikora bidaiatuko dute, herritik irten beharrik gabe. Aurten, abuztuaren 16an mozorrotzeko, herrialde eta kultura horixe aukeratu dute, eta horren inguruan hainbat ekintza prestatu dituzte.

Jai batzordeak galdeketa bat egin du herritarren artean mozorrotzeko gaia aukeratzeko, eta Mexiko izan da botorik gehien jaso dituen. 19:00etan hasiko da jai plaza. Txosnan musika eta janari mexikarra izango dira protagonista. Bitartean, Mexikon tradizioa duten

hainbat jokotan parte hartzeko aukera egongo da. Oro har, egunean zeharreko ekitaldi denetara mozorrotuta joateko deia egin du jai batzordeak; esaterako, 12:00etan hasiko den paella txapelketara. Jaietako ekitaldirik jendetsuenetakoa izaten da. Iaz 300 bat lagun batu ziren txapelketaren bueltan.

Musika kontzertuak dira jaietako beste osagai inportan-

Abuztuaren 13an, Skakeitan, Joxe Replay eta Hesian taldeak datoz

teetako bat. Esaterako, Mikel Urdangarinen kontzertuagaz agurtuko dute abuztuaren 15eko gaua. Jaiei ongietorria emateko, aldiz, Skakeitan, Hesian eta Joxe Replay taldeak ekarriko dituzte abuztuaren 13an. Hurrengo egunean The Potes eta Las Tea Party-ren txanda izango da, eta abuztuaren 16an, jaietako azken egunean, Joxpa taldearena.

Zumba solidarioa

Abuztuaren 14ko zumba maratona helburu solidario batekin lotu dute aurten ere. Iazko moduan, Angelman sindromendunen elkarteak postu bat jarriko du plazan, gaixotasuna ezagutara emateko.

Biketriaren mundu mailako izarra Mañarian

Javi Alonso asturiarrak erakustaldia eskainiko du

> ERAKUSTALDIA J.D.

Bizikleta gainean paisaia malakartsu eta gatzetan akrobaziak egiteari Biketrial deitzen zaio. Kirol honetan dabilzanek oreka, ausardia eta abilezia handia erakusten dute. Gaur egun munduan dagoen erreferente nagusietako bat Javi Alonso asturiarra da, eta abuztuaren 14an, 17:00etan, erakustaldia eskainiko du plazan. Alonso Espainiako gaur egungo txapelduna da. Bere ibilbidean birritan geratu da Europako txapeldun, eta beste hainbatetan munduko azpitxapeldun.

Lehenengo, gaztetxoentzat zirkuitu bat atonduko du. Berak gidatuta, gura duten gaztetxoek

euren abilezia erakusteko aukera izango dute. Ondoren, bere txanda izango da.

Kirol arloko erakustaldiak jarraituz, abuztuaren 15ean, 13:00etan, askotariko herri kirolak erakutsiko dituzte Arratiako Irati Astondoak, Andoni Urrutiak, Uxue Ansorregik eta Mikel Agirrek. Gaztetxoek herri kirola erakustaldiak ere izango dira.

Birritan Europako txapelduna izan da, eta beste bitan munduko azpitxapelduna



Javi Alonso Biketrial praktikatzen.

HERRI-TABER
EGUNEKO MENUA - PLATER KONBINATUAK - KAZUELATXOAK
OGITARTEKOAK - OTORDUAK ENKARGUZ
Herriko plaza. · Tel.: 946 200 278 · MAÑARIA

HARATEGIA - URDAITEGIA
BIZKARRA
BASERRIKO OKELA
TXORIZOAK ETA
ODOLOSTEAK
Tel.: 946 816 945 · Mug.: 615 781 247 · 48212 MAÑARIA (Bizkaia)

Azkonizaga
Ortuzar, 1 · Izurtza (Bizkaia) · Tel./Faxa: 946 810 652
azkonizaga@azkonizaga.com
www.azkonizaga.com

JAVIER BIZKARRA GARRAIOAK

Karga erabilgarria 18.000 kg | Andra Mari, 19-1D | Tel.: 659 178 332
Mañaria (Bizkaia)

aserradero
zugazagoitia
agirre
maderas

Aldegoiena, 2-a
48212 MAÑARIA (Bizkaia)
Tel./Faxa: 946 818 798

Eguneko menuak 9,60 euro
astelehenetik ostiralera
12:30 etatik 15:00 arte

ERREKONDO
JATETXEA
94 681 85 77
Andra Mari, 11 - Mañaria
errekondo taberna

MALLABIKO JAIEN EGITARAUA

ABUZTUAK 14, igandea UMEEN EGUNA

11:30-13:00 Mallabiko Trikitilariak.

12:00 Umeen txupinazoa botako du Alkate txikiak.

12:30-14:30/16:00-18:00 Umeentzako parkea: puzgarriak, jumping-a... parkean (Euria bada, CIP-eko futbito-zelaian)

18:00 Bits festa parkean.

18:00-21:00 Kale animazioa Elektropatxaranga taldearekin.

19:00 Txupinazoa, Aitor Elordi pilotariaren eskutik.

19:30-21:00 Txokolatada plazan, eta, ondoren, II. Adarra jotzea.
SARIAK:
1. Saria 40€-ko erosketa-txartela.
2. Saria 20€-ko erosketa-txartela.

21:30 Pilota partiduak
Mallabia I Kirol Etxean:
Elordi-Tolosa // Gorka-Irusta
Irribarria-Barriola// Altuna III-Zubieta
PILOTA PARTIDURAKO SARRERAK (ABUZTUAK 14)
Sarrerak abuztuaren 8tik 12ra salgai udaletxean
-Mallabiko langabe, ikasle, jubilatutako eta pentsionistentzat 12€, justifikazio txartela erakutsita.
-Gainontzeko mallabitarrentzat 18€.
Partidu egunean leihatila 21:00etan zabalduko da, eta sarrerek prezio bakarra izango dute, 25€.

23:00 Erromeria Basajaun taldearekin, plazan.

ABUZTUAK 15, astelehena ANDRA MARI EGUNA

11:00 Meza Jasokunde parrokan. Ondoren, kalejira plazatik frontoira, Mallabiko dantzariarekin.

12:15 Bertsolariak: Felipe Zelaia eta Miren Amuriza. Ondoren Mallabiko dantzarien emanaldia frontoian.

17:00 Tute txapelketa Kontzejuzarrean
Sariak:

- 1.** Saria 80€-ko menu-txartela eta garaikurra.
- 2.** Saria 40€-ko menu-txartela.

17:30 Mallabiko XXVI. HARRI-JASOTZE SARIA Harri Txikia
PARTE-HARTZAILEAK:
Galarraga (Orio)
Etxeberria (Orio)
Eizagirre (Zarautz)
Lopetegi (Zarautz)
Peñagarikano (Aizarnazabal)
Inhar (Ondarroa)

SARIAK

- 1.** 800€ GARAİKURRA eta TXAPELA.
- 2.** 650€ ETA GARAİKURRA.
- 3.** 500€ ETA GARAİKURRA.
- 4.** 400€.

Gainerako parte-hartzaileentzako dieta 250€.
Dagoen marka hausten duenari 180€.
Sari hauek atxikipen fiskala izango dute. Lehiaketan parte hartzeko izen-ematea txapelketa egunean amaituko da.

18:30 Bike Trial bizikleta ikuskizuna, parkean (Euria bada, CIP-eko futbito-zelaian).

22:30 Kepa Junkera eta Sorginak ikuskizuna parkean.

ABUZTUAK 16, asteartea SAN ROKE EGUNA, NAGUSI ETA KOADRILEN EGUNA

11:00 XVII. PAELLA ETA V. MARMITAKO lehiaketarako izen-ematea.
OINARRIAK
Ez dago paella edota marmitakoa egiteko derrigorrezko osagairik.
Marmitakoa 13:00etarako aurkeztu behar da, eta paella 13:30etarako, epaimahaiak dastatu eta sariak banatzeko.
Taldea bakoitzak bere sua ekarri beharko du, butanoa edo barbakoa, baina ezin da sua lurrean egin.
Lehiaketa herriko plazan egingo da.

SARIAK:

MARMITAKOA:

- 1.** saria 110€-ko otarra
- 2.** saria 55€-ko otarra

PAELLA:

- 1.** saria 110€-ko otarra.
- 2.** saria 55€-ko otarra.

Mallabiko Trikitilariak animatuko dute giroa

12:00 Meza, Jasokunde parrokan.

14:00 Paella eta marmitako lehiaketako sariak banatzea.

14:00 Jubilatuen bazkaria
Kontzejuzarrean, eta 16:00etan magoa jubilatuentzat.

20:00 Mallabitar guztientzat txerri errea dastatzea
(2 pintxo, euro 1) eta sagardoa doan.

20:30 Erromeria Luhartz taldearekin, plazan

OHARRA: Jaietan ezbeharren bat gertatuko balitz, Mallabiko Udalak ez luke inongo erantzukizunik izango

MALLABIA I KIROL ETXEA
2016-ABUZTUAK 20, 21, 22 eta 23
Izena-ematea: abuztuaren 7an (igandea) 12:00etan udaletxean.

SARIAK

- 1.** 1700€ garaikurra, txapela eta mantak
- 2.** 1450€ eta garaikurra
- 3.** 1300€ eta garaikurra
- 4.** 1100€ eta garaikurra
- 5.** 1000€
- 6.** 900€
- 7.** 850€
- 8.** 800€
- 9.** 750€
- 10.** 700€

*Sarietara heldu ez arren, 30 untzeko marka gainditzen duen idi pareak 350 € jasoko ditu.
Sari hauek atxikipen fiskala izango dute.



Ondo pasatu
Andra Mari
jaietan!



MALLABIKO UDALA



Lehiaketa gastronomikoak abuztuaren 16an egingo dituzte.



Abuztuaren 14tik 19ra arte elkartuko dira mallabitarrek Andra Mari jo jaiak gozatzera.

Mallabiko jaiak lagunarteko giro alaian igarotzeko egitarau zabala dago prest

Umeen Eguna ospatuko dute jaien lehenengo egunean; 12:00etan egingo dute umeen txupinazoa

> **JAIK** Itsaso Esteban

Umeen Eguna ospatuko dute Mallabiko Andra Mari jaietako lehenengo egunean, abuztuaren 14an. Umeen txupinazoa egingo dute 12:00etan, eta herriko txiki-ien gozamenerako, umeen-tzakako parkea, bits festa eta kale animazioa izango dira. Txupinazoa nagusia 19:00etan botako du Aitor Elordi pilotariak.

Umeen Eguna izango da jaietako lehen eguna, abuztuaren 14a

Abuztuaren 16an, San Roke egunean, aldiz, nagusien eta koadrilen eguna ospatuko dute Mallabiko jaietan. Egun horre-

tan paella lehiaketaren XVII. edizioa eta marmitako lehiaketaren Ven aldian burutuko dituzte. Txapelketa gastronomiko horietan parte hartzeko, 11:00etan eman beharko da izena. Marmitako kazolak 13:00etarako eduki beharko dira prest, eta 13:30era-ko paellak.

Egun horretan, txerri errea eta sagardoa dastatzera elkartu-

Abuztuaren 14an pilota partidu profesionalak jokatuko dituzte

ko dira mallabitarrek 20:00etan herriko plazan, eta Luhartzen erromerian dantzatuko dira, 20:30etik aurrera.

Kirolek ere presentzia nabarmena dute Mallabiko jaietan. Abuztuaren 14an pilota partidak izango dira, 21:30ean, Kirol Etxean. Elordi eta Tolosa, Gorka eta Irustaren kontra arituko dira; eta Irribarria eta Barriola, Altuna III.ena eta Zubietaren kontra. Partidu horretarako sarrerak abuztuaren 8tik 12ra arte eskuratu ahalko dira udal- etxean, aurrez aurre.

Abuztuaren 15ean Mallabiko XXVI. harri-jasotze saria jokatu-ko dute, 17:30ean hasita. Galarraga, Etxebarria, Eizagirre, Lopezegi, Peñagarikano eta Inhar harri-jasotzaileak jardungo dira harri txikiagaz.

Abuztuaren 15ean Kepa Junkera eta Sorginak entzuteko aukera

Zazpi musikari gaztek lagunduta arituko da Junkera abuztuaren 15an



‘Maletak’ izenburuko bigarren diskoa aurkezten dabiltza Junkera eta Sorginak.

> **MUSIKA** I.E.

Zazpi musikari eta dantzari gaztek osatzen dute Mallabiko jaietan Kepa Junkeragaz joko duen Sorginak taldea. Junkeraren trikitixari euren panderoa-gaz, ahotsagaz eta perkusioekin laguntzen diote zazpi musikari horiek, eta dantzari ere jardungo dira, gainera, abuztuaren 15eko kontzertuan.

Maletak diskoa aurkeztuko dute Junkerak eta Sorginak taldeak. Ia ehun lagun kolaborazioagaz grabatu zuten elkarlan horren barruko bigarren diskoa, eta Euskal Herriko doinuez gain, Galizia, Aragoi, Katalunia eta Gaztela eta Leon go eritmoak ere biltzen ditu.

Mallabiko Andra Mari jaien hasiera ere trikitixa doinuz egingo dute, abuztuaren 14an,

11:30etik aurrera: Mallabiko trikitilariak girotuko dituzte jaietako lehenengo orduak. Arratsaldean, berriz, elektro-txaranga arituko da Mallabiko kaleak musikaz girotzen, 18:00etatik 21:00etara.

Mallabiko trikitilariak joko dute abuztuaren 14an, 11:30ean

Jasokunde herriko abesbatzaren bi emanaldi ere jasotzen ditu Mallabiko Andra Mari jaien egitarauak. Abuztuaren 14an, 11:00etan, Andra Mari eguneko mezan izango da emanaldietako bat; eta abuztuaren 16an, 12:00etan, bigarren.

LARZEP
HYDRAULIC

Urtiaga etorbidea, 6
MALLABIA
info@larzep.com
Tel.: 943 17 12 00

Excavaciones BOLIÑA
Mallabia - Bizkaia

· 629 340 410 ·
· 618 954 280 ·
excavacionesbolina@hotmail.es

RHEYDE
lanabesak s.l.

✓ Perfilatuak
✓ Moldaketak
✓ Berreskuratzekak

Goitondo ind., 3. pab. - 48269 MALLABIA • 184 PK - 48260 ERMUA

Ganadu garraioa
Juan Luis Irazola

Tel.: 609 794 504
943 170 651
48269 MALLABIA

Aitor Elordi | Pilotaria | Mallabia, 1996

“Herri guztiaren aurrean txupinazoa jaurtitzea oso polita izango da”

Aitor Elordi pilotari mallabiarrek jaurtiko du txupinazoa, abuztuaren 14an



> MALLABIA Jone Guenetxea Urtarrilean profesionalean debutatu zuen Aitor Elordi pilotariak jaurtiko du aurten herriko jaietako txupinazoa. Parandarako ez du astirik izango, baina. Udaletxeko balkoitik berehala jaitsi beharko du, iluntzean partidua jokatuko baitu. Elordi eta Tolosa, Gorra eta Irustaren kontra arituko dira. Irribarriak eta Barriolak, berriz, Altuna III.ena eta Zubieta izango dituzte aurrez aurre.

Zelan jaso duzu albistea?

Amak lagun bat du udaletxean, eta hari esan zioten txupinazoa neuk botatzeko gura zutela, aurten nire debuta izan delako. Amaren bidez jakin dut, beraz.

“*Goiz da erronketan pentsatzeko. Gogor entrenatzen jarraitu gura dut*”

“*Nire debutean herriko jendea ondoan izatea oso berezia izan zen*”

Gustatu zaizu proposamena?

Bai, herri guztiaren aurrean txupinazoa botatzeko oso polita izango da. Beraz, oso pozik nago.

Herrikideen aurrean zer esango duzun erabakitako duzu?

Udaletxean horretaz arduratzen denagaz ez naiz batu, baina pentsatuko dut zer esan.

Sentitu izan duzu herritarren babesa kantxan?

Gehien debut egunean sentitu nuen. Mallabitik jende asko joan zen. Ez nuen hainbesteko babesa espero. Nire egun berezi horretan herriko jendea ondoan izatea oso berezia izan zen. Astelena bete egin zen. Mallabitik Eibarrera autobusetan eta kotxeetan joan ziren.

Urtarrilean profesionalean debutatu zenuenetik, zelan aldatu da zure bizitza?

Gehiago entrenatzen naizen arren, egunerokotasunean ez da hainbeste aldatu. Ikasten jarraitzen dut, eta entrenatzen ere bai.

Profesionalean aritu arren, ikasketak garrantzitsuak dira.

Ikasten jarraitu behar da, pilotako momentua amaitu egiten da eta. Ikasi barik gaur egun ez dago ezer. Goi mailako modulu bat ikasten ari naiz.

Iurretan entrenatzen zara?

Mallabiko klubetik Iurretako klubera joan naiz. Kluba ados dago, eta Josetxo Areitio gaz entrenatzen naiz.

Urte honen balorazioa egingo zenuke?

Gauzak apurka-apurka lortzen dira. Debutatu arren, pilota sakrifkatua da eta apurka-apurka noa.

Hurrengo erronkak zeintzuk dira?

Goizegi da erronketan pentsatzeko. Orain gogor entrenatzen jarraitu gura dut, eta partiduetan gustura sentitu. Maila igozteko gura dut, eta egongo da erronketarako astirik.

Udan partiduak dituzu. Oporrak noizko?

Bai, udan herrietako jaiak dira, eta partiduak jokatzeke aprobetxatzen dugu. Ea lesiorik ez dugun eta kantxan disfrutatzen dugun. Klaseak amaitzerakoan hartu nituen pare bat aste.

Excavaciones Jon
Lur mugimenduak

• Jon Garitagoitia Gallastegui •

MOTA GUZTIETAKO
INDUSKETAK
HONDAKINDEGIA

Pagotxueta, z/g • GERA - 48269 MALLABIA
Tel.: 943 17 26 54 • Mug.: 629 446 099



HERRIKO
TABERNA
943
174
952

PLATER KONBINATUAK,
BOKATAK, ENTZALADAK,
PIZZAK, ERRAZIOAK,
KAZULARRAK ETA
ENKARGUZ ERA
GUZTIETAKO JANARIAK

BETEARTE

BI-3342 errep., pk. 38 • Areitio Garaia
48269 Mallabia (Bizkaia)
Tel.: 943 170 307

BARNE INDARRA GIHARTU

Egunen joan arinak isurtzen ditu bazterrak. Sarritan asmo ditugunetara heldu ezinean, nekez eta noraezean beste hainbatetan. Bitartean, bihar beste egunik ez balitz lez, arrapalada garbian eta beste ezertarako inolako hatsik izateko zorian gabiltza beti ikara eta egonezin bizian. Gaurkoan ditugu oinak eta gogoa, bihar edota etzi egitekoetan buru eta asmoa; horrela eragotziz gabiltza egunorokoaren gozamen eta etorkizuneko atseginaren giltza. Gutxi batzuetan besterik ez dugu alegeraz eta bizi-pozez jardunaz gure inguruko gauza xumeez benetan gozatu eta dastatzen.

Lehiakortasunaren hegoak igoa, eraginkortasuna, berrikuntza eta azaleko arrakasta dira egungo gizarteak lehenesten dituen eremuak. Bizkor bizi izanak ditu hainbat ohitura on ahanzarazten eta gure kalterako ez gara, gehienetan, konturatzen. Zurrumbiloan erabat sartuta, uste baino lehen denboraren joanak uzten digu buru zilartu garbi zahartua.

Urteetan zehar gabiltza jauzika, oharkabe ditugu aldirik onenak iheska. Lan egin beharrraren beharrak ezartzen gaitu gehiago nahiaren egoeran, okerreko bidean. Izanaz baino ondusunaz gehiago arduratzen gara eta horrela daukagu inguruan hainbat bidegabeko jarduera eta anker izaerako joera. Ere-dugarri izan behar ez duenaren lekuko.

Azkar bizi gara horretara hobe delakoaren sinesmen bihurrian, gaur agindutakoak atzorako direla. Biziera istilutsuan, eguneroko zereginen antzean gabiltza bete-betean eguneroko gure betebeharrean, bizitza eskutik nola doakigun ohartzen ez garen bitartean. Gure burua engainatu nahian edo, trebatuz eta ikasten jarraitzeko denborarik eza nagusi dela sarri esanez, gure gaitasun intelektualak hobetzeari gabiltza uko eginez, seme-alabei horrelakorik etengabe eskatzen diegun arren gau eta egunez.

Denbora aldi oro alferrik galtzen dugu ez baitugu hunki eta jakintza mailan hobera ez egiteko...denborarik eza izaten da gehienentzat.

Besteenganako zerbitzu eta onura izan behar litzateke gure eguneroko jokabide eta ardurara. Lagun hurkoarenganako ditugun beharleku eta atazek neurtzen dituzte gure bizitzaren kalitate eta taupadak.

Garai baten pertsonen artean ohiko zen harreman zuzena gaur bihurtu da urri eta zekena.

Informatika bidezko harremanetan jotzen da hitz laburrera; buruz burukoetan esturaz eta ezinean gara. Gizakion istilurik gehienak besteekiko harremanak egokitasunez kudeatu eta garatzeko prestakuntzarik eza izatetik eratorriak dira.

Bizitza honetako helburu nagusia besteen zerbitzura egon eta norbere eta besteen bizibidea zoriontasunez isurtzea da. Norbere zoriona besteengan zoriona sortzean datza.

Gutariko bakoitzaren zoriontasuna besteen bizitza erraztu eta euren zerbitzura egonean datza, bera baita gure bilakaera pertsonalaren giltza eta bizitzan benetako arrakastaren neurri bikain eta zehatza.

Norbanakoon garapen eta bilakaera pertsonala besteengan dago. Gure izana besteengan gauzatzen da. Eskuzabal agertzean besteengan gure benetako barne-gogoa adieraztera ematen dugu. Horrela aritzearen muina gure barne indarra dugu. Barne indar hori da guztiok landu, garatu eta etengabe hobetu beharrean garena, gure ondorengo edo ingurukoei gizaseme bikainak izan daitezen bideak irakasteko egoeran izan gaitezen.

Ama Lurrak irakasbide ugari eta nonahi ematen dizkigu giza-kiok gure bizitzan erabilgarri izan ditzagun baina, tamalez, gure hondamendirako, Ama Lurrari begiratu eta bere arnasa entzutea ere ahanzi egin zaigu.

Ereindako hazia baino ez da ernetzen baina biziraupenerako ernamunean direnak etengabe zaindu behar dira bidean galdu ez daitezen. Gizakien arteko aukerako harremanak edota pertsonen arteko komunikazio egokirako tresnak, beste era batera esatearren, etengabe hobetu beharrean gara komunikazio desegokiak sorrarazten baitizkigu gizakion artean ditugun liskar, istilu eta desadostasun ia gehienak.

Nagusion eguneroko jardueran baina, arazo, istilu eta erronka korapilatsuenak atontzeko, lan arazoez gain, sarritan gizakion arteko komunikazioak eraginda ezinikusi pertsonalak ere izaten dira. Asmorik onenak izan arren, gorabehera horiek bideratzeko egin ditzakegun ahalegin guztiak egin arren, gehienetan ez dugu arazook bideratzeko gogapen handirik egiten eta jarrerarik agertzen.

Errealitatea egoskor eta burugogor azaltzen zaigu eta adiskide, sendiko edota lagun batekin sortutako egoera istilutsuak bere onera bideratzeko izan ditzakegun joran eta gogorik tsuenak jarri arren, gehienetan

ez dugu asmo horiek gogobetetzera letorkeen emaitza egokirik lortzen eta ondorioz gure baitan ez da porrotaren goganbehera besterik nagusitzen. Sarritan gainera gauzak hobera ekarri baino gehiago okertu besterik egin ez ditugunaren susmoa ere, eginahalak egin arren, izaten da.

Muga horiek eguneroko azaltzen zaizkigu eta bitartean... pazientzia galdu, hainbatetan neurriz kanpo erantzun eta batzuetan, ohiturarik ezak eraginda besteek esaten dizkigutenak arretaz, tentuz eta adorez entzun beharrean, entzungor egiten dugu.

Zurrumbiloan murgilduta, uste baino lehen denboraren joanak uzten digu buru zilartu garbi zahartua

Gure gizartean “itxurazko entzutea” da nagusi, beharko genukeen “entzute aktiboaren” kaltetan

Gure gizartean, oro har, “itxurazko entzutea” da nagusi, berez agertu behar genukeen “entzute aktiboaren” kaltetan. Egia esan, besteen adierazpenak arretaz entzuteko jarrera izateak lan ikaragarria eskatzen du, batez ere arrazoiak “NORBERAK” daukanaren pentsamendua erabat sustraituta dagoenean. Eta gehienetan, okerrean baina, uste horretan gara...

Horrelakoetan, oso zaila den arren, norbere jarduera eta ekintzen kontrol erraldoia behar da, egoerak gaina hartu eta desegoki jardun ondoren, be-

rotasunean egin edota esandakoengatik inolako damurik gure baitan sor ez dakigun.

Beraz, irribarrea adierazi, arnasa sakon hartu eta berehala barka eskatuz “Ederto, lagun iezadazue zuon ikuspegia ulertzen” edo antzerako azalpena egin eta aurrera jotzea da bidea. Horretarako istilu bakoitzaren aurrean emozio inteligentziak eskaintako baliabideak erabiltzea egokitzen da.

Solaskidea/k aintzat hartu eta euren adierazpenak aitortu eta aintzatestea ez da lan erraza izaten berezitasunez horretarako ohiturarik baitaratuta ez denean. Eguneroko egoeretan era horretan jarduteak, batzuetan, ahalegin ikaragarria eskatzen du baina...gure nortasuna eta izana garatzen joateko funtsezkoa da.

Ohiturek indar handia dute gure zeregin, jarduera eta ekintzetan. Ondorioz, gure lagun edota ingurukoekin arazoak ditugunetan gure asmorik hobereak agertuz istilua bideratzeko asmotan hasi gaitezkeen arren, aurrera egin ahala gure jarrerai eusten jarraitzeko gero eta jokabide nabarmenagoa agertuz hasierako egoerara itzultzeko joera izaten dugu, geure burua mindutzat hartzen dugun heinean ohitura ditugun betidaniko “borrokatu” edota “ihestu” paradigma zaharkituetara joz, ezer aurreratzeko gai izan ez garenaz ohartu bitartean. Eta hori ez da bidea...

Horrek ez du baina, egindako saiakerak baliagarritasunik ez duela adierazi nahi eta emaitzarik ez izana porrot gisa ezin aintzat hartu daitekeenez, argi nabarmentzen da gure barne indarrak askoz gehiago landu beharra izateaz gain, gure izaera edota nortasunaren giharrak ere nabarmen sendotu eta indartu behar ditugula.

Ingurukoengatik zenbat eta gehiago arduratuz, bizitzak eskaintzen dizkigun edozein

aukera edota gero eta handiagoak diren erronkei erantzunik egokienak ematea helburutzat baldin badugu, barne indar sendo eta gorenak behar izango ditugu. Arazoa zenbat eta handiagoa edota korapilatsua goa izan, bermez aurre egiteko segurtasun maila, mentalitate oparoa, maitasuna, entzun-entzuna, enpatia, begirunea, eta pazientzia maila handiagoak behar izaten dira.

Gure egitekorik garrantzitsuenak etorkizunean dira, etortzeke daude. Asmo horrekin bizitzea funtsezkoa da. Gaurdaino egindako guztia gorabehera, gerora egin ditzakegun ekarpenak asko eta garrantzitsuak izango dira baina horretarako borondatea, jarrera, barne gogo eta indarra, kemena, ilusioa eta lanerako grina gorenak behar dira.

Egun arte izan dugun lanaren desberdina egiten hasi gaitezke, baina, era batera edo bestera, garrantzi handikoa izango da dagokion lanaren bitartez besteen bizitzarengan zirrara onuragarriarik sortzea ahalbidetzen badigu. Orain arte egindakoari sarri begiratzen diogu norbere lan-ibilbidea zuritu nahian edo, baina horrelakorik saihestu eta etorkizunerantz baikortasunez begiratzen datza bide egokia.

Funtsezko arrakasta bakoitzaren barne muinetik abiarazten da, gutariko bakoitzarengan dauden barne indarrek sortua da baina, irakurle, gai hori azaltzeari beste une baten ekingo diot.

Bitartean, helburu nagusia laguntza ematean datza, hiru-garrenen onuratan aritzea alegia, edota gure inguruan ikus ditzakegun beharrian garrantzitsuei erantzuna eman eta gizar-teari edota norbere sendiari eman diezaiokegun laguntzan oinarritutako lanari zintzo ekitea. Halabiz.

GORKA AURRE

prakagorri@prakagorri.es



PRAKAGORRI

Reading skills

Tel.: 944 915 763 · prakagorri@prakagorri.es

irakurri 4 ALDIZ ARINAGO
EMAITZA HARRIGARRIAK !

Hobetu egizuz zure irakurketa-abiada eta ulermenak!
Errotik aldatuko dozuz zure irakurketa-gaitasunak.
Irakurketa-abiada handia eta ulermen bikaina.



9 urtetik aurrera, adin muga barik, PRAKAGORRI dozu zure eta zure seme-alaben urtenbide



Orce Nikolov talde mazedoniarreko 42 kide etorriko dira Durangon saioa eskaintzera: dantzariak eta musikariak.

Krskitinek gonbidatuta datoz Mazedoniako dantzariak Durangon saioa eskaintzera

Santa Ana plazan izango da, bihar, 20:00etan hasita, Durangon Folk jaialdiaren XVIII. emanaldia

> DANTZA Itsaso Esteban
Uda Klean Bizi aire zabaleko kultur programazioa itxiko du Durangon Folk jaialdiaren biharko emanaldiak. Santa Ana

plazan, 20:00etan izango da hitzordua, eta Krskitin herriko taldeak gonbidatuta datorren Mazedoniako taldearen eskutik, Balkanetako folkloreak

erakustaldia izango da ikusgai. Krskitinek eta Mazedoniako Orce Nikolov taldeak parte hartuko dute nazioarteko dantza jaialdiaren XVIII. edizioan.

Mazedoniako Skopje hirian 1945ean sorturiko dantza eta kantu taldea da Orce Nikolov. Balkanetako herrialde hartako herri dantzak, kantuak,

musikak eta janzkerak zaindu eta ezagutzera ematea helburu hartuta sortu zuten. Durangon, talde horretako 42 kide arituko dira; dantzariak eta akordeoia, klarineta, danborra eta biolontxelo jotzen duten musikariak batuta.

Mazedoniako zenbait eskualdetako hamar dantzen emanaldia eskainiko dute mazedoniarrek Santa Anan. Krskitinek, bestalde, Nafarroa, Gipuzkoa eta Bizkaiko sei dantza eskainiko ditu. Emanaldiari amaiera emateko, talde bietako dantzariak Luzaideko polkak dantzatzeko dituzte elkarrekin.

Aurreko edizioetan bezala, doako sarrera edukiko du Durangon Folk jaialdiaren barruko emanaldiak, eta antolatzailerik aulkia ipiniko dituzte ikuslegoa eroso egon dadin.

Abuztuan, Tenerifera

Durango biharko emanaldi horren ostean, Krskitin dantza taldeko kideak izango dira geure dantzak erakustera bidaiari joango direnak. Abuztuan, emanaldi bi eskainiko dituzte Tenerifen: Candelariako nazioarteko folklore jaialdian bata, eta irlaren hegoaldeko El Médano herrian, bigarrena.

> MUSIKA Itsaso Esteban
Nik West baxu-jotzaile eta abeslari estatubatuarren pop, rock eta funk doinuak entzungo diren egunean, uztailearen 28an, arituko dira Mundaka Surf Festival-en Mocker's taldeko gazte durangarrak. West ezezik, The Sheepdogs kanadiarrak, Australiako eta Ingalaterrako musikariak biltzen dituen Sunset Sons, eta Indigos katalanak ere izango dituzte oholtzakide.

Erreferenteen artean

Halako jaialdi batean lehenengoz arituko da Mocker's, eta Ritxi Blanco gitarristak azpimarratu duenez, "ez da kontzertu bat gehiago: nazioarteko taldeek parte hartzen duten jaialdi handi bat da, eta normalean ez daukagu halako aukerarik". Water Boys edo Danko Jones izenak ere badakartzan kartel baten parte izateko aukerari ahalik eta zuzen gehien aterako diote durangarrek. "Erreferenteak dira guretzat", dio Blancok.

Jaialdiaren antolakuntzak 45 minutuko tarte eskaini die jotzeko, eta Blancok azaldu duenez, emanaldi osoa jarraian, gelditu barik, jotzeko asmoa daukate: "Ahalik eta abestirik gehien jo gura dugu", dio.

Barikuan jo ostean, asteburu osoa jaialdiaz gozatzen emango dute Mocker's-eko hiru lagunak.

Mundaka Surf Festivalen joko du, datorren barikuan, Mocker's hirukote durangarrak

Uztailearen 28an joko du Mocker's-ek Mundakan. Disko berrirako kanta konposatzen dabil laukotea

Azken asteak kanta berriak sortzen eman dituzte Mocker's taldeko Ritxi Blancok, Asier Eliasek eta Jon Garciak. Denbora daramate zuzeneko eskaini barik, taldearen bigarren diskoa izango dena prestatzen.


"Asier bateria-jotzailea Trikitio taldeagaz dabil udan biran, eta kanta berriak jotzeko aprobeztatu gura dugu kontzertuen geraldia", adierazi du Blancok.

Disko berria noiz plazaratuko duten datarik ez du eman

Blancok, baina zehaztu du, 6-7 kanta sortuak dituztela, eta diskoako 8-10 kanta prest eduki bezain pronto, "ahalik eta lasterren" plazaratuko dutela.

Mocker's-en estiloa, "esentzia" mantenduta, taldearen

eboluzioaren isla dira kanta berri horiek, taldeko gitarristak aurreratu duenez. "Rock&Rolla, psikodelia eta erritmo bihurriak" dira taldekideek gordeztza gura duten eta fruitu ederak eman dituen esentzia hori.



45 minutuko kontzertua eskainiko dute Jon Garciak, Asier Eliasek eta Ritxi Blancok Mundaka Surf Festival-en.

“Zuhurtzia” abiapuntu eta “anbizioa” helmuga Larrazabalen proiektu berrian

Amorebieta futbol klubeko entrenatzaile berria den Aitor Larrazabal asteen aurkeztu dute



Aitor Larrazabal laguntzaile eta jokalariekin astelehenean Urritxe futbol-zelaian egindako aurkezpenean.

> FUTBOLA J.D.

Amorebieta futbol klubak entrenatzaile berria du 2016/17 denboraldian. Aitor Larrazabalek (Loiu, 1971) Carlos Docando ordezkatu du. Astelehenean aurkeztu zuten ofizialki Urritxen, eta bere etapa berrirako dituen asmo eta itxaropenak plazaratu zituen. Bigarren B Mailako multzo konplikatu egokitu zaiela uste du, baina “ahal duguna

egingo dugu talde lehiakorra eta anbiziotsua izateko”. Bidea egin ahala markatuko dituzte helburuak: “Egokitu zaigun multzoa kontuan hartuta, aurreko denboraldietan lez mailari eusteko 45 puntuak batzea da helburua. Hortik aurrera ikusiko dugu nora heldu gaitezkeen”. Baina ez dio ezeri aterik ixten: “Zuhurrak izan behar dugu helburuak jartzerakoan, baina zuhurtzia

horretatik abiatuta anbizioitsuak ere bai”.

Denboraldiari aurre egiteko “luxuzko” talde teknikoak babestuta sentitzen da: Gontzal Suances bigarren entrenatzaileak, Dani Aranzubia atezainen entrenatzaileak, Xabi Sanchez laguntzaile teknikoak eta Igor Goikoetxea prestatzaile fisikoak osatzen dute Larrazabalen lan taldea.

Klubak hainbat jokalaria berri ekarri ditu taldea indartzeko eta Larrazabalek ez dio aterik ixten posturen bat indartzeko aukerari, baina aztoratu gabe: “Ez dugu presarik eta ezin gara zoratu. Ikusiko dugu merkatuak zer eskaintzen duen eta klubeko aurrekontuak zer dioen”.

Oraingoz, zazpi jokalaria fitxatu dituzte, beste bat utzita dator eta gazteen taldeko hiruri au-

kera emango diete. Atea Seran Borja Angoitia (Deustotik) eta Jon Villanuevak (Marbellatik) gordeko dute; Atzeko lerroa Eriz Goiria zornotzarragaz (Gernikatik) eta Iñaki Oiaortuagaz (Zaragozatik) indartu dute; Zelai erdirako Adrien Goñi (Rodatik) eta Aitor Castro (Leioatik) batu dituzte. Erasoko jokorako Koldo Obieta ekarri dute Zamudiotik, eta Iñigo Baqué durangarra utzita dator Athleticetik. Lehen taldera igo diren harrobiko jokalaria honako hauek dira: Oier Luengo defentsa, Unai Ferreras zelai erdiko eta Ibrahima Dieng aurrelaria.

Iaztik jarraitzen duten jokalariekin eta etorri diren berriekin “taldea egitea” izango da Larrazabalen lehenengo zeregina: “Giro ona funtsezkoa da. Entrenatzera pozik etorri daitezela gura dut. Hori da geroa emaitzak lortzeko oinarria”.

Jokamoldeari dagokionez, joko zuzena baino gehiago gustatzen zaio konbinaziokoa, baina batzuetan unean-uneko beharrrizantara moldatu beharra dagoela onartu du: “Denetarako prestatuta egon behar dugu”.

Larrazabalek Gatikan eman zituen lehen urratsak entrenatzaile moduan. Ondoren, urte bitan Lemoa zuzendu zuen Bigarren B Mailan. 2011n Athleticera batu zen harrobiagaz lan egiteko. Iaz Marbellan aritu zen. Zornotza bere entrenatzaile ibilbideko laugarren taldea izango da.

Eustrak-Euskadi UCI mailako taldeak Zuazubiskar fitxatu du

Euskadiko pistako talde bakarrak abadiñarraren aldeko apustua egin du



Illart Zuazubiskar aurrerantzean pistako probetan jantziko duen elastikoagaz.

> PISTA J. Derteano

Eustrak-Euskadi UCI mailako taldeak Illart Zuazubiskar (1990, Abadiño) fitxatu berri du. Berrizko taldea Euskal Autonomia Erkidegoan pistara bideratuta dagoen UCI mailako talde bakarra da, eta lau txirrindulari osatzen dute. Illart Zuazubiskar da gizonezko bakarra. Tania Calvok eta Irene eta Ane Usabiaga ahizpek osatzen dute taldea.

Oraín arte errepideko Ampo taldeagaz edo selekzioagaz lehiatzen zen pistan. Eustrak-Euskadira batuta UCiren kategoria goreneko lasterketa denak lehiatzeko aukera izango du. Atzo Italiako Fiorenzuola herriko lasterketa batean egin zuen debuta talde berriagaz.

Lartitegi txapeldun eta Aramendia debutari

Amaia Lartitegi Euskaldun Torneo irabazi du

> TXIRRINDULARITZA J. D.

Durungaldeko taldeetan dabilen hainbat txirrindulari nabarmentzen ari dira aurtengo denboraldian. Maila guztietan, gainera: Amaia Lartitegi (Iurretako CAF Engineering) kadeteetan, Maialen Aramendi (CAF) gazteetan eta Mavi Garcia (Bizkaia-Durango) nagusietan.

Zizurkilan jokaturako azken lasterketan Lartitegi Euskaldun Torneoaren irabazleari dagokion elastikoa jantzi zuen. Beste hainbat lorpen ere baditu aurtun: Bizkaiko eta Euskadiko txapelketak irabazi ditu.

Kopako laugarrena

Bizkaia-Durango taldeko Mavi Garciak, aldiz, Espainiako Kopa azken unera arte borro-

katzeko asmoa zuela erakutsi zuen Zizurkilgo etapa irabazita. Oraín arte ezin izan du Kopako lasterketa denetan parte hartu, baina, hala ere, lau garaipen daramatza. Abuztuaren 6an Pontevedran (Galizia) jokaturako den azken lasterketaren faltan laugarren dago sailkapen nagusian. Italiako Giroan maila bikaina eskaini eta 16. tokian amaitu ostean, gogotsu eta sasoi bikainean dabil balear uhartereko txirrindularia.

Aramendia selekzioagaz

Gazte mailako Maialen Aramendiak ere badu zer ospatua. Espainiako selekzioagaz Valladolideko Itzulian parte hartzeko seikotean sartu dute. Espainiako selekzioagaz arituko den lehenengo aldia izango da.

Nafarroa, Errioxa, Araba zein Gipuzkoara joan daitezke Master Kaiolako txapelak

Esku pilotako gazte eta 22 urtez azpiko pilotaririk onenak batu ditu Zornotzako txapelketak



Babesle eta antolatzaileak finalak aurkezten, eguaztenean, Zelaieta zentroan egindako prentsurrekoan.

> PILOTA J.D.

Zornotzan Master Kaiola lau t'erdiko pilota txapelketako finalak jokatu dituzte zapa-tuan, 18:00etatik aurrera. Hiru hiletan 73 partidu jokatu dituzte 100 bat pilotarik, eta horietako lau bakarrik daude bihar txapela janzteko aukerekin. Ez dago bizkaitarrik tartean. 22 urtez azpikoan Arabara edo Errioxara joango da txapela, eta gazteetan Nafarroara edo Gipuzkoara.

Gazte mailako finala Iraitz Zubizarreta lazkaotarraren eta Peio Etxeberrria uhartearraren artekoa da. Zubizarretak finala errepikatuko du. Iaz, kadete mailan, galtzea egokitu zitzaion. Aitor Aranguren gehiago izan zen bai Zornotzan bai hiru aste lehenago Tolosan elkarren kontra jokatuak beste final batean. Aurten Tolosako txapelketa irabazita dator Zubizarreta, eta iaz Arangurenek lortutakoa

errepikatzen saiatuko da. Pedro Etxeberrria uhartearra izango du parez pare. Biek merezita egin dute finalera arteko bidea, eta adituek final estua espero dute.

22 urtez azpiko mailan Errioxako eta Arabako pilotari bana lehiatuko dira: Adrian Prado najerarra Mikel Larrañaga zaramagarraren kontra. Espero zitekeen finala da. Pradoren dohainek pilotazaleen arreta

erakarri dute txapelketan jokatuak lehenengo partidutik bertatik. Etxeberriak ere bizi erabiltzen du pilota, txispadun pilotaria da, eta ez da kasualitatez heldu finalera.

Gazte mailako irabazleak, txapel preziatuagaz gainera, 600 euroko saria irabaziko du, eta azpitxapeldunak 450 eurokoa. 22 urtez azpiko onenak 800 euro jasoko ditu, eta txapeldunordeak 600 euro.

ADITUAREN TXOKOA

OIHANA AZKORBEBEITIA

Mendi lasterketa



Kirola, jolasa

Noiz hasten da ume bat 'kirola' egiten? Zenbat urterekin uzten dio ume batek jolas egiteari eta ekiten dio 'kirolari'? Ba al dago mugarik jolasaren eta kirolaren artean? Nire iritzian ez.

Ez dago jolasean hasteko adin zehatzik. Lehenago hasiko dira batzuk, gerotxoago besteak, baina behar duten sasoian hasiko dira jolasean ume denak. Eta jolasa bera kirol ezin hobea bihurtzen da umearen garapen fisiko eta intelektualerako. Mugimendua gure eguneroko jarduerak da, nahigabe egiten dugu kirola hara eta hona mugitzen garenean. Neska-mutikoak jolasaren bitartez mugitzen dira sarri askotan, eta ariketa egiten dute, jakin ez badakite ere.

Eskolan bost-sei urterekin hasten dituzte haurrek eskolaz kanpoko ekintzak, kirol ekintzak barne. Futbola, atletismoa, dantza, gimnasia, igeriketa... aukera ugari dituzte gaur egungo haurrek. Hala ere, sei urteko haurrak ez ditu jarduerak hauek "kirol" gisa hartzen. Adin horretako haurrak jolas egin nahi du, besterik barik, eta horixe da hain zuzen ere berarentzat "kirola" egitea: lagunekin egotea eta dibertitzea. Jolastea, alegia.

Gurasoak gara askotan hori ulertzen ez dugunak, eta zerbait gehiago eskatzen diegunak seme-alabei. Lehiatzeko sena ondo barneratuta dugu (gizarte lehiakor honek barneratuta neurri batean), eta eurengan islatzen dugu jakin barik. Garrantzitsuenak da umeek ondo pasatzea, eta egiten duten kirol edo jolasa eginda ere, zoriontsu izatea.

Athletic eta Antiguoko, gazte mailako futbol talderik onenak Otxandion ikusteko aukera

Eibar taldeagaz batera hiruko txapelketa bat jokatu dute abuztuaren 6an, Otxandion



Goian Antiguoko taldea, eta behean Athleticcekoa.

> FUTBOLA J.D.

Gazte mailetan Euskal Herrian dauden bi talderik onenek Otxandion jokatu dute abuztuaren 6an, 11:00etan. Eibarregaz batera hiruko txapelketa batean parte hartuko dute Zelaieta futbol-zelaian.

Athletic Clubeko gazteak Euskadiko Ohorezko Mailako txapeldun geratu dira, hain justu, Antiguokoren aurretik. Athletic jaun eta jabe izan da ligan, eta Donostiako taldeari 11 puntuko aldea ateratzen dio. Okerrik ezean, aurten berriz ere aurreneko posturako lehian ibiliko dira talde biak, eta Otxandioako torneoak talde bien prestakuntza zein puntutan dagoen jakiteko balioko du. Eibar taldea, berriz, bederatzigarren tokian sailkatu zen 2015/16 denboraldian.

Antiguoko taldea ez da torneoak jokatzera etorriko bakarrik. Hiru eguneko egonaldia egingo dute Koikili Aterpetxean ostatu hartuta, eta hainbat entrenamendu saio egingo dituzte. Hiruko txapelketa egonaldiko azken hitzordua izango dute.

Eusport-ek antolatuko du ekimena Vulcano futbol klubaren laguntzagaz, eta sarrera doakoa da. Hiru taldeek 45 minutuko partiduak jokatu dituzte elkarren kontra. Partiduen amaieran, badaezpada, penaltiak jaurtiko dituzte.

Euskarari lehentasuna

Koikili Lertxundi Athletic Clubeko jokalaririk onenak eta Mikel Abasolo Vulcanoko zuzendari-tzako kideak torneoak girotzen jardungo dute futbol-zelaiko megafoniatik. Euskarari lehen-

tasuna eman gura izan diote, eta azalpenik gehienak euskaraz izango dira.

Torneoaren amaieran, ekimena antolatzen lagundu duten babesleek zein hiru talde partaideek emandako produktuekin (kirol materiala, kamisetak...) zozketak egingo dituzte.

Otxandio ezagutaraztea da ekimenaren helburuetako bat. Horregatik jokatu dituzte partiduak goizez; eguerdian jokalaririk zein gurasoek herrigunera joateko aukera izan dezaten.

Egin zaitez Anbotoren Lagun, eta atera etekina txartelari!

Babestu proiektua urtean 30 euroren truke,
eta gozatu abantaila eta deskontu hauetaz:

DESKONTU BEREZIAK



A-METZ DEKORAZIOA

> -%20 proiektuan, udaleko legalizazioetan eta irekiera proiektuan.



BETIXU JATETXEA

> - %10 asteburuko otorduetan eta kartan, ostiral eta larunbat gauetan.



COLOR PLUS

> -%10 tinta- eta toner- kartutxo bateragarrietan.
> -%5 tinta- eta toner- kartutxo originaletan.



EPOCA SUKALDEAK

> -%10 sukalde nahiz etxeko altzarietan.



EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

> -%10 sarreran deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.



GIMNASIO ZIRKIN

> Bazkide berriei matrikulazioa doan.
> Bazkide direnei 10 sesioko solarium bonoa doan.



GONZALO MANCISIDOR BITXI-DENDA

> -% 5 produktu guztietan.



HITZ LIBURU-DENDA

> -%10 euskarazko liburuetan.



HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

> -%15 sarreran.



ITAI ARROPA ETA OSAGARRI DENDA

> -%5 lehenengo erosketan.
> -%10 erosten den bigarren arropan.



IURRETA KOPISTEGIA

> -% 10 eskola eta bulego materialean.
> -%5 musika, opari eta liburuetan.



KATXARRO JATETXEA

> - %10 asteburueta menuetan.



KIROL ERROTA GIMNASIOA

> Bazkide berriei matrikulazioa doan.



LANDAKO OPTIKA

> -%15 eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean, eta armazoi eta lenteetan.



NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

> -% 10 Dippner oinetakoetan.
> -% 15 Euskal Herriko produktu ekologikoetan.



OPEN KLUB

> -%20ko deskontua matrikulan. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.



PLATERUENA KAFE ANTZOKIA

> Bosgarren gosaria doan.
> Plateruenak antolatutako ekitaldietan leihatilan erositako bigarren sarrera doan.



UNAMUNZAGA ETXEBARRIA HORTZ-KLINIKA

> Azterketa eta bi erradiografiak doan.



UNDARRI BIKE

> -%10 ski eta snow materialen mantentze-lanetan: zolari argizaria eman eta ertzak zorrotzu.
> -%10 bizikletako osagarrietan.



URRIKE LIBURU-DENDA

> -%5 liburuetan.
> -% 10 papergintzan.



UR URDAIBAI

> -%25 Anbotoren Lagunarentzat eta horren lagun batentzat Urdaibaiko itsasadarraren jaitsieran, piraguan edo stand up paddle-ean.

Anbotoren lagunak

Lekuan lekuko lagunak

www.anboto.org
lagunak@anboto.org
946 816 558

Anboto komunikabideak

@anboto

Gazte mailako euskal txirrindularirik onenak Zornotzan lehiatuko dira astelehenean

Astelehenean 126 km-ko ibilbideari aurre egingo diote Euskal Herria Torneoako azken aurreko proban



30 bat taldeetako txirrindulariak batuko ditu asteleheneko probak. Maialen Zuazubiskar

> TXIRRINDULARITZA J.D. Gazte mailako txirrindularientzat Euskal Herria Torneoaren barruko lasterketak izaten dira denboraldiko hitzordurik nagusienak. Aurtengo egutegia zortzi lasterketek osatzen dute, eta horietako bat Zornotzan lehiatuko dute astelehenean.

Euskal Herria Torneoazken txanpan sartuta dago. Bihar

Zumaian eta astelehenean Zornotzan lehiatu ostean, Azkoitia-ko proba —abuztuaren 14an— bakarrik faltako da irabazlea erabakitzeko. Oraingoan Ulma taldeko Mikel Arregi gipuzkoarra da liderra. Erregularitasuna izan du armarik onena. Ez du lasterketarik irabazi, baina aurrean ibili da gehienetan: Hirugarren amaitu zuen Duran-

gon eta bosgarren Amurrian, esaterako. Saillapen nagusian Gontzal Garcia atxondarra da Durangaldeko ordezkariarik onena, 15. tokian.

Zornotzako lasterketa 10:00etan hasiko da, herrigunean. 126 kilometroko ibilbideak bi tarte desberdin ditu. Hasieran Lemoa, Bedia eta Usansolotik zeharreko zirkuituari

lau itzuli emando dizkiote. Ondoren, azken zatian, Muniketa igoko dute.

Parte hartuko duten 30 taldeetako bat probako antolatzaileena da: Amorebieta txirrindulari elkartearen Ekin taldea. Aurrean ibiltzea dute helburu Iñigo Larruzea elkartearen presidentearen esanetan: “Aurten ez dut uste irabazteko lehian egongo garenik, baina betiko moduan borrokatuko dugu, eta aurreneko bostetan ordezkari bat sartuz gero, emaitza ona litzateke”.

Fermin Areitio gogoan

Lasterketa hasi aurretik minutu bateko isilunea gordeko dute oraintsu hil den Fermin Areitio gogoratzeko. Kadeteen taldeko zuzendaria izateaz gainera, Zornotzan lehiatzen ziren lasterketa denetako antolatzaile nagusienetakoa izan zen. 30 urtetik gora zeramatzan Amorebieta txirrindulari elkartearen barruan.

Garciaren eta Lagosen txanda Espainiako xake txapelketan

> XAKEA J.D.

Azken asteetan Espainiako Xake Txapelketak jokatzeko ari dira mailaz maila Anadaluzian, Granadako Salobreña herrian. Orain aste bi Manex Regillaga elorriarrak 12 urtez azpiko 20. postuan amaitu zuen. Jokatutako bederatzi partidetak bost irabazi zituen, eta beste bi berdindu. Egindako lanagaz gustura egoteko moduan dago Zaldi Baltzako xakelari gaztea.

Datozen egunetan durangar biren txanda izango da. Abadiño Xake Taldean dabilta biak. Asteon zehar Alberto Garcia Martinez de la Hidalga 16 urtez azpiko xakelaririk onenekin lehiatzen dabil. Bihar jokatu du azkenengoa.

Jon Lagos Lejarzagak, berriaz, 18 urtez azpiko mailan parte hartuko du. Lagos euskal ordezkariarik onena da. Gaur egun, Bizkaiko eta Euskadiko txapelak duna da gazte mailan. Datorren astelehenean du lehenengo jardunaldia, eta zapa-tuan azkena.

ARGAZKI lehiaketa
2017

DURANGALDEA
IRUDITAN

Durangaldeko hamairu herritako argazkiak aurkeztu beharko dira irailaren 30a baino lehen. Informazio gehiago: anboto.org webgunean.

SARIA 500€ Argazki sorta onenari

anboto 
komunikabideak



KAFE ANTZOKIA - MONTEVIDEO

Durangoko herrigunean

Energia eraginkortasun handiko etxebizitzak

Hiriko txaletak

Oiz mendira begiratokiak

Leku zabalak

**Etorri
ikustera!**

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673

Kontsultatu beste aukerak Iurretan, Elorrion eta Durangon

Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1.º ezk. • 48200 DURANGO
Tel.: 946 813 562

ETXEBITZAK ALOKAIUAN

DURANGO. Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 550€-tik hasita.

ETXEBITZAK SALGAI

DURANGO. Tabirakalea. 3 logelako etxea, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira. Eta garaje itxia.

DURANGO. Errotaritxueña Atiko zoragarria. 3 logela, bi komun, bi terraza zabal, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, eta garaje itxia lau kotxe sartzeko. Ikusgarria.

DURANGO. Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 komun, sukaldea, egongela balkoiarekin eta despentsa.

ATXONDO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, hiru balkoi. Horrez gain, garaje itxia.

ELORRIO. 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea balkoiarekin, komuna, eta garajea itxia.

DURANGO. Kalebarria, 3 logelako etxebizitza, sukaldea, egongela, eta komuna. 120.000€.

DURANGO. ARTEKALE. Azken etxebizitza, bikoak, trastelekuarekin. Prezioak 165.000€-tik hasita.

LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

ABADIÑO. Aita Letona. Etxebizitza ederra 2 logelarekin, komuna, sukaldea, egongela, garajea eta trastelekua.

ABADIÑO. Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, komuna, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

DURANGO. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, komuna, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, komuna, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriatua. Horrez gain, trastelekua.

LURSAILAK SALGAI

ABADIÑO. 1.000 m²-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitze baimenarekin. Zonalde egokia.

BERRIZ. 10.000 m²-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitze lursaila, 1.000 m². Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA. Txalel bifamiliarr bat eraikitze lursaila, 3.000 m² inguruko azalerarekin.

AMOREBIETA. LARREA. 27.000 m²-ko lursail ederra, dena partzela bakarrean.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO. GAZTELUA. Baserri ikusgarria, arku eder batekin sarreran, ekialdera begira, 20.000 m²-ko lursaila baserriaren ondoan.

BERRIZ. Txalela 1.200 m²-ko partzelan, Abeletxe kalean. Hegoaldera begira. 4 logela, 3 komun, sukaldea, egongela, eta garajea.

ATXONDO. Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m²-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

BERRIZ. Bº Murgoitio. Bifamiliarr ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 komun, garaje bikoitza, 12.000 m²-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

MENDATA. Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berriatutako. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkina, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatutako.

BERRIZ. Baserri ederra, Murgoitioko zonaldean. Egokia landa-turismorako, landetxea. Ikuspegi ezin hobea.

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXEBITZAK SALGAI

MARTXOAREN 8KO



• Oso egoera onean dagoen etxebizitza. 3 logela, egongela sukaldearekin jarrita, esekitokia, 2 komun, bata leihoarekin. Ganbara eta garajea. **250.000€.** €

DURANGO - TROMPERRI



• 99 m²ko etxebizitza eraikita. 4 logela, egongela handia, sukaldea jarrita, 2 komun, garajea eta ganbara. Dena kanpora begira. Ikuspegi onak eta eguzkitsua. Terraza eta txoko komunitarioa. **243.900€.**

ASKATASUN ETORBIDEA



• 92,75 m² erabilgarriko etxebizitza. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, 2 komun, balkoia, garajea itxia eta ganbara. Ikuspegi onak. **225.000€.** €

MUSIKO ALTUNA



• Etxebizitza guztiz berriatua. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, 2 komun, ganbara eta garajea. Guztiz isolatua. Kontsultategia izateko prestatua dago. **206.000€.** €

PINONDO



• 67 m² erabilgarri. Ikuspegi zoragarriak. Etxe guztia kanpora begira. Balkoia itxia. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, komun bat. Berogailuarekin. Igogailuarekin. Bizitzeko sartzeko moduan. **LEHEN 195.000€ / ORAIN 175.000€.** €

MAÑARIA:



• 100 m² erabilgarriko etxebizitza. 3 logela, egongela-sukaldea, sukaldea jarrita, 2 komun, 35 m²-ko ganbara, trastelekua eta garajea. **198.000€ + BEZa.**

www.inmoduranguesado.com

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AUKERA

- MATIENA. Laubideta k/. 4 logela. Komuna. Sukaldea. Egongela. Garajea aukeran. **AUKERA 145.000€.**

- DURANGO. (Zeharmendieta) 3 logela. Komuna. Egongela. Berogailua. Bizitzeko sartzeko moduan. **85.000€.**

- KURUTZIAGA. 3 logela, komuna eta balkoia. **130.000€.**

- A. ESTEGIZ. 2 logela. Komuna. Egongela. Sukaldea. Ganbara. Igogailua. Eguzkitsua. **90.000€.**

- IURRETA. 3 logela. Igogailua. Berogailua. **115.000€.**

- ATXONDO. 3 logela. Komuna. Eguzkitsua. Aukeran 78m²-ko lokalarekin. **80.000€.**

ETXEBITZAK SALGAI

- J.M. ALTUNA. Erdialdean. Kapritxosoa. 3 logela. 2 komun. Garajea aukeran. **206.000€.**

- ABADIÑO. Txanporta. 2 logela. Komuna. Ganbara. Kalera ematen duen garajea. **130.000€.**

- ELORRIO. Balentin Berriotxo. 103 m². 3 logela. 2 komun. Sukaldea. Egongela.

- ELORRIO. 3 logela. Komuna. Sukaldea. Despentsa, egongela, trastelekua. Ikuspegi onak. Eguzkitsua. **129.000€.**

- F.J. ZUMARRAGA. Apartamentua. Erdi berria **155.000€.**

- OLLERIA. 100m². 3 logela. 2 komun. Sukaldea Esekikotia. Egongela. Terraza. Ganbara eta garajea. **265.000€.**

- M. TORRE. 134m². 4 logela. 2 komun. Sukaldea. Egongela terrazarekin. Trastelekua. 2 garaje. **270.000€.**

- IZURTZA. 2 logela. Komuna. Egongela. Bizitzeko sartzeko prest. **85.000€.**

- IURRETA. Maspe. 3 logela. **110.000€.**

- TABIRA. 2 logela. Komuna. Egongela. Guztia berriatua. **125.000€.**

- TROMPERRI. 4 logela. 2 komun. Egongela. Ganbara eta garajea. Txoko komunitarioa. **243.900€.**

- KOMENTUKALE. 4 logela. Komuna. Egongela. **125.000€.**

- F.J. ZUMARRAGA. 100m². 4 logela. 2 komun. Ganbara eta garajea. **236.000€.**

- IURRETA. ELIXALDE. BERRIA ESTREINATZEKO. 100m². 2 logela. 2 komun. Sukaldea. Esekikotia. Egongela terrazarekin. Ganbara, eta garajea itxia. **245.000€.**

- MIKELDI. Etxebizitza altua. Erdi berria. 3 logela. 2 komun. Egongela. Sukaldea esekitokiarekin. Trastelekua. Garajea. **270.000€.**

- EZKI. 2 logela. Komuna. Sukaldea. Egongela. Trastelekua. Zelairekin. **170.000€.**

- AMOREBIETA. 70 m². 2 logela. Komuna. Berriatua. **160.000€.**

- ATIKOA. 35m²-ko terrazarekin. 2 logela. Komuna. Egongela. Sukaldea eta garajea.

- ZALDIBAR. Iturrioz. 3 logela. Komuna. Egongela. 2 terraza. Igogailua. **140.000€.**

- ZUMALAKARREGI. 65 m². (Bulegoa izateko egokia).

LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIUAN

- F.J. ZUMARRAGA. 114m². SALGAI. **200.000€.**

- IBAIZABAL. 50m². Guztia jarrita. **500€.**

- KOMENTUKALE. 50 m². Guztia jarrita. **85.000€.**

- IBAIZABAL. 55 m². Guztia jarrita. Alokairua/ Salmenta.

- ERDIALDEAN. 228 m². Salmenta. **182.400€** (sartzeko aukera. Negoziagarria.)

- DURANGO. TABERNA martxan. 95m². **186.000€.**

LOKALAK ETA ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN. KONTSULTATU.
www.inmoetxetxo.com

**ALOKAIUAN
ETA SALGAI DITUZUN
HIGIEZINEN BERRI
EMAN NAHI
AL DUZU?**



**Anbotok tarte hau
eskaintzen dizu**

Informazio gehiagorako:
Tel.: 946 217 902
publi@anboto.org

anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

2 TEKNOLOGIA

3 LANA/NEGOZIOAK

4 DENETARIK

5 IBILGAILUAK

6 HARREMANAK

7 AISIA/KIROLA

8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzat - Erregistratu www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: anboto@anboto.org.

Paperean, ordainduta: Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Lekeitio. Lekeitio Alde Zaharrean eta itsasoari begira 3 logelako duplex zoragarria salgai. Tel.: 650-18 33 05.

Mallabia. Aukerakoa, nekazaritzarako edo nekazaritza-turismorako, toki eguzkitsua eta ederrean, 20.000 m2 lursail. Prezio egokia, ikusi nahi baduzu, deitu. Tel.: 655-70 26 47 (19:00-21:00). Nahi izanez gero, aukera dago lursail gehiago eskuratzeko.

Mallabia. Pisu eguzkitsua, 3 logela handi, 2 komun, terraza, sukaldea eta egongela. 100m2-ko azalera eraikituak. Harremanetan jartzeko deitu 695-77 31 41 telefonora.

LOKALAK

SALDU

Lekeitio. Lekeitio 65 m2 lokala salgai. Alde Zaharrean. Tel.: 650-18 33 05.

GARAJE / TRASTEROAK

SALDU

Otxandio. Otxandion garaje plaza estalia salgai. Tel.: 675-71 72 83.

ERRENTAN EMAN

Berriz. Berrizen garajea alokatzen da geltoki ondoan. Tel.: 671-09 85 40.

Durango. Durangon garajea trastelekuarekin akokatzen dut. Euskaltel denda ondoan Tel.: 676-97 95 77. Posta: Bakarloi@hotmail.com.

Durango erdian garajea errentan eman. Plateruen plaza azpian garajea errentan ematen da. Sarrera Arkotxa kaletik eta Oiz kaletik. Interesatuak 658-71 83 43 telefonora deitu.

LURSAILAK

ERRENTAN HARTU

Durangaldea. Durangaldea lursail bat alokatu/erosi nahiko nuke. Txikia izanda ere nahikoa litzateke. Kotxez eskuragarri. Erlauntz batzuk ipintzeko izango litzateke. Zure ortua polinizatu eta uza hobea izateko onuragarria izan leike! Tel.: 629-58 37 63.

Durangaldea. Durangaldea ortua jartzeko eta animaliak izateko lursail baten bila nabil. Ibilgailuarekin sartzeko leku egokia. Tel.: 622-47 33 65.

Lana - negozioak

LAN ESKARIAK

ETXETOKO LANAK

Elorrio. Emakume arduratsua etxeko lanak egiteko eskaintzen du bere burua. Esperientzia handia. Erreferentziaduna. Tel.: 688-92 75 58. Posta: juliachans67@gmail.com.

PERTSONAK ZAINDU

Durango. Etxeko garbiketa lanetan eta umeen zaintzan laguntzeko pertsona baten bila gabiltza. Irailetik aurrera eta egunero. Tel.: 661-29 74 63.

Durango. Nagusiak edota umeak zaintzeko prest nago, baita garbiketan aritzeko ere. Barneko langile moduan ere bai. Tel.: 632-16 37 82.

Durango. Gizon arduratsua prest dago pertsona nagusiak zaintzeko. Gidatzeko baimena daukat eta esperientzia. Ordu-tegi malgua, lanegun eta asteburuetan. Tel.: 631-82 46 08.

Durangaldea. Emakume arduratsua lan bila dabil, barneko langile moduan, nagusien eta umeen zaintzan. Esperientziarekin. Tel.: 632-79 06 93.

Durangaldea. Emakume arduratsua, erizaintza ikasketekin, lan bila dabil, gauetan eta asteburuetan nagusien zaintzan. Esperientziagaz. Tel.: 612-21 26 54.

Durangaldea. Lan bila barneko langile moduan zein orduka. Tel.: 603-50 50 42.

Durangaldea. Lan bila garbiketaren edo umeak zein nagusiak zaintzen. Tel.: 672-58 28 63 // 632-40 21 35.

Durangaldea. Neska arduratsua lan bila dabil barruko langile moduan pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 612-40 09 15.

Durangaldea. Lan bila nabil garbiketan edo adinekoak zaintzeko. Tel.: 688-82 42 47.

Durangaldea. Neska arduratsua lan bila dabil, barneko edo kanpoko langile moduan. Nagusiak edo umeak zaintzen, garbiketan ere bai. Erreferentziarekin. Tel.: 631-99 05 81.

Durangaldea. Gizon arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak edo baserriak zaintzen. Garbiketan ere jarduten dut. Berehala hasteko moduan. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 697-23 76 00.

Durangaldea. Neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Garbiketan ere jarduten dut. Barneko edo

kanpoko langilea. Orduka eta lanaldi erdi ere bai. Tel.: 677-77 00 08.

Durangaldea. Lan bila nabil barruko edo kanpoko langile moduan pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 631-28 33 97.

Durangaldea. Lan bila, 40 urtetik gorako emakumea. Esperientzia pertsona nagusiak zaintzen. Barneko langile moduan lan bila nabil. Durangaldean bada, nahiago. Tel.: 612-21 26 54.

Durangaldea. Neska arduratsua prest dago pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, orduka, asteburuetan, barruko edo kanpoko langile moduan. Gauetan laguntza ospitalean. Garbiketa taberna, diskoteka, atari eta etxeetan. Tel.: 697-31 33 58.

Durangaldea. Neska arduratsua prest dago pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, orduka, asteburuetan, barruko edo kanpoko langile moduan. Gauetan laguntza ospitalean. Garbiketa taberna, diskoteka, atari eta etxeetan. Tel.: 663-51 37 21.

Durangaldea. Neska arduratsua lan bila dabil arratsalde edo gauz pertsona nagusiak zaintzeko. Garbiketan ere jarduten dut. Esperientziagaz. Paperekin. Tel.: 620-14 17 12.

Durangaldea. Emakume arduratsua, esperientziagaz eta erreferentzia onekin prest dago pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxea garbitzeko, sukaldean aritzeko, arropak lisatzeko eta taberna eta atariak garbitzeko. Berehala hasteko moduan. Kanpoko langile moduan, orduka, gauetan, asteburuetan eta jaiegunetan. Tel.: 632-41 25 57.

Durangaldea. Emakume arduratsua, esperientziagaz eta erreferentzia onekin prest dago pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxea garbitzeko, sukaldean aritzeko, arropak lisatzeko eta taberna eta atariak garbitzeko. Berehala hasteko moduan, orduka, gauetan, asteburuetan eta jaiegunetan. Tel.: 663-37 51 55.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago, barruko edo kanpoko langile moduan. Orduka eta asteburuetan ere bai. Tel.: 634-74 85 31.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. Barneko langile moduan. Astelehenetik barikura. Tel.: 632-70 81 59.

Durangaldea. Lan bila pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 675-49 76 66.

Durangaldea. Emakume arduratsua, esperientziagaz, erreferentzia onak, paperekin lan bila pertsona nagusiak zaintzen. Barneko edo kanpoko langilea. Tel.: 602-14 17 12.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. Barneko langilea. Astelehenetik barikura. Tel.: 632-70 81 59.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Tituluduna. Esperientziagaz. Tel.: 652-23 82 60.

Durangaldea. Lan bila etxeko lanetan: nagusiak zaintzen, umeak zaintzen, garbiketan. Tel.: 612-42 50 97.

GAINERAKOAK

Durangaldea. Gizon arduratsua esperientziagaz, baserri edo tallerretan edozein lan egiteko prest nago. Tel.: 660-91 85 49.

LAN ESKAINTZAK

PERTSONAK ZAINDU

Elorrio. Haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume bat behar da. Interesa badaukazu, deitu. Tel.: 652-70 55 91.

Durangaldea. Pertsona arduratsua baten bila gabiltza irailtik aurrera umeak zaintzeko eta etxea garbitzeko. Tel.: 615-70 19 08.

GAINERAKOAK

Durangaldea. 2016-2017 ikasturterako, eskola kirolerako monitoreak behar dira.

Interesdunek utzi curriculum Elorrioko kiroldegian edota bidali elorrikoeskolakirola@bpxport.es helbidera.

Durangaldea. Esperientziadun pertsona behar da bidaia agentzia batean lan egiteko. Plaza hutsa da. Hizkuntzak jakitea, bidaiatzeko prest egotea eta gidatzeko baimena izatea baloratuko da. Bidali curriculum admin@viatge-spoblenou.com-era.

Durangaldea. Durangaldeko enpresa batek administrazio eta finantzetako goi mailako teknikaria behar du enpresaren administrazioa eramateko. Ezinbestekoa euskaraz lan egiteko gaitasuna. Jardunaldi osoko lanpostu egonkorra da. Berehala lanean hastea aurreikusten da. Bidali cv-ak laneskaintzak@gmail.com helbidera.

GAINERAKOAK

Durango. Lanerako leku bat eskaintzen da Durangoko San Inazio auzoko coworking batean ingurumena, diseinua, ingeniari-tza eta tankerako alorretan lanean dabilen jendearekin espazioa konpartitzeko. Prezio ona, giro atsegina eta euskalduna. Urtebeterako konpromisoa eskatzen da. Interesa duenak deitu edo whatsappetik idatzi: 659 680 217

Familia - etxea

GAINERAKOAK

EMAN

Arraza txikiko txakurkumeak oparitzen dira. Arraza txikiko txakurkumeak oparitzen dira. Tel.: 692-36 69 55.

Katakumeak erregalatzen dira. Katakumeak erregalatzen dira. Tel.: 626-28 65 23

LAN ESKAINTZA

Plateruena Kafe Antzokiak ostalaritza arduraduna behar du

ESKATZEN DA:

- Ostalaritza eskarmentua izatea.
- Izaera aldetik jarrera konprometitua, planifikatua eta dinamikoa.
- Erabakiak hartzeko gaitasuna.
- Harremanetarako gaitasuna.
- Lan-taldea koordinatzeko gaitasuna.
- Euskara maila ona.
- Ofimatika: oinarriko ezagutza.

BALORATUKO DA:

- Ostalaritza ardua postuetan aritu izana.
- Ostalaritza arloko ikasketak izatea.
- Gidabaimena eta autoa izatea.

ESKAINTZEN DA:

- Lan kontratua, jardun osoan.
- Hasteko aurreikusitako data: 2016ko iraila.

Curriculumak bidaltzeko: zuzendaritza@plateruena.net

AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.





Uztailaren 24an, 23:00etan, Zornotzan

Delorean, jaietan

Zornotzako jaietan, Zubiondo parkean, joko du Delorean talde zarauztarrak domeka honetan, 23:00etatik aurrera. Doinu dantzarriak eskainiko ditu 'Muzik' diskoa aurkezten dabilen laukote horrek.



Jaiak

:: OTXANDIO

UZTAILAREN 22an

17:00etan, 'Lorrazak' memoriaren ibilbidearen bisita gidatua (gaztelaniaz).

18:00etan, Andikonako Foroak adostutako testua onarzeko ezohiko bilkura

18:30ean, 'Lorrazak' memoriaren ibilbidearen bisita gidatua (euskaraz)

20:00etan, frankismoaren biktimen oroimeneko ekitaldia.

22:30ean, koadrilen arteko play-backa.

UZTAILAREN 23an

09:00etan, etxeko txiki eta gaztetxoentzat arrantza txapelketa, Mataderoan.

12:30ean, Otxandioko Urbiribil dultzainero taldearen kalejira.

14:00etan, paella eta bolo txapelketak, San Martinen.

19:30ean, Gasteizko Akelarre txaranga, kalerik kale.

23:00etan, Eratu eta Kaotiko taldeen kontzertuak.

02:30ean, Garilak 26 berbena.

UZTAILAREN 24an

07:30ean, Diana eta kalejira.

08:00etan, sokamuturra.

12:00etan, meza nagusia.

13:00etan, omenaldia 1936. urtean izandako bonbardaketako hildakoei, Andikona plazan.

13:45ean, limonada banatzea, plazan.

14:00etan, Otxandioko eta Araiako banden kalejira.

19:00etan, La Jodedera.

20:00etan, Eusko Label pintxoen dastaketa, plazan.

22:30ean, Kupela taldearen berbena.

00:30ean, Agur Santamarina abestea eta jaiei amaiera ematea, plazan.

:: ZORNOTZA

UZTAILAREN 22an

18:00etan, bizikleta eguna, Zubiondo parkean.

19:00etan, pala partiduak, Amorebieta IV. frontoian.

21:00etan, Txistularien XVII. kontzertua (Keu Agirretxea artista gonbidatuagaz), Zelaieta parkean.

23:00etan, Kiko Veneno, Zubiondo plazan. Steepers + Arkada Social, Txosnetan.

UZTAILAREN 23an

09:00etan, usakume-tiroa, Boroa poligonoan.

09:00etan, umeen arrantza lehiaketa, Ibaizabal errekan.

11:00etan, umeentzako bolo txapelketa, Gure Kirolak bolatokian.

18:00etan, Zornotzako II. master kaiola, Amorebieta IV frontoian.

21:00etan, VI. Bolo txapelketa, Gure Kirolak bolatokian.

22:45ean, El Consorcio, Zubiondo plazan.

23:00etan, Las Tea Party, txosnetan.

UZTAILAREN 24an

09:00etan, usakume-tiroa, Boroa poligonoan.

11:00etan, ontzi modelismo erakustaldia, Jauregibarrian.

12:00etan, Bios orkestra, Zornotza Aretoan.

Amorebieta-Etxanoko V. Milia, Herriko plaza eta San Miguel kalearen artean.

17:30ean, Karmenetako IX. esku pilota txapelketa.

22:00etan, danborrada.

22:30ean, Zeinke + DJ Jotatxo, txosnetan.

23:00etan, Delorean, Zubiondo parkean.

UZTAILAREN 25ean

Goizean, baserritarren azoka, Zelaieta parkean.

17:30ean, Karmenetako IX. esku pilota txapelketa, Amorebieta frontoian.

18:00etan, koadrilen arteko herri kirolak, Zelaieta parkean.

18:30ean, SDA taldearen aurkezpen partidua, Urritxe futbol-zelaian.

22:30ean, su artifizialak, Jauregibarrian.

UZTAILAREN 27an

20:45ean, Talent show eta Challenge-eko sari banaketa.

21:00etan, Elektrotzaranga eta Broken Brother kalejiran.

22:00etan, Augie Burr & The Elvis Tribute Band, Zubiondo plazan.



Musika

:: BERRIZ

UZTAILAREN 22an

22:00etan, John Berkhout, Kultur Etxean.

:: DURANGO

UZTAILAREN 22an

19:30ean, Tabira musika bandaren Madalena eguneko kontzertua, Plateruen plazan.

:: ELORRIO

UZTAILAREN 22an

22:30ean, La Yegros, plazan.

UZTAILAREN 23an

22:30ean, Audience, plazan.

UZTAILAREN 29an

22:30ean, Quimi Portet, Tola jauregian.

UZTAILAREN 30ean

22:30ean, Izaki Gardenak, Tola jauregian.

UZTAILAREN 31n

19:00etan, Greg Izor & The Romanticos, Tola jauregian.



Erakusketa

:: DURANGO

ABUZTUAREN 14ra arte

Ertibil Bizkaia 2016, Arte eta Historia Museoa.



Zirkoa

:: DURANGO

UZTAILAREN 22an

22:00etan, 'Awish', musika eskolako parkean.

UZTAILEKO AGENDA



19-29 **ANDEREBIDE**
Irailak 7: "Taller de autoestima a través de la escritura" kurtsoaren hasiera. Izen-ematea: Uztailaren 19-29. Informazio gehiago: 616 490 506.

23 **SANTIXAU JAIK OROZKETA**
Jaien hasiera. Txapligoak.

24 **SANTIXAU JAIK OROZKETA**
12:00 Meza, ondoren luntxa. Jarraian, igel txapelketa.

25 **SANTIXAU EGUNA OROZKETA**
12:00 Meza, ondoren Mikel Deuna Dantza Taldea.
Paella txapelketa, bakoitzak bere tresna eta osagaiak ekarri behar ditu.
14:30 Paellaren aurkezpena.
16:30 Umeen jolasak.
17:30 Briska txapelketa.

OHARRAK
Herri bibliotekaren berrantolaketa lanak direla eta, biblioteka zerbitzua etenda dago.

IBARRETXE KULTUR ETXEKO UDAKO ORDUTEGIA
Irailaren 30era arte Ibarretxe Kultur Etxea goizez irekiko da, 8:30etatik 13:00etara.

Abuztuaren 1etik 26ra Kultur Etxea itxita egongo da.

UZTAILAREN 26an

11:30ean, ume eta gazteentzako jolas parkea, Zelaieta parkean.

19:00etan, 'El gran Dimitri' umeentzako antzezlan, Zubiondo plazan.

21:00etan, Fresh Cool dantza emanaldia, herriko plazan.



Dantza

:: DURANGO

UZTAILAREN 23an

20:00etan, Durangon Folk, Santa Ana plazan.




Antzerkia

:: ELORRIO

UZTAILAREN 24an

19:00etan, 'Mikro antzezlanak, Casa Jara jauregian.



:: DURANGO | ZUGAZA

La leyenda de Tarzán

• **barikua 22:** 19:30/22:00
• **zapatua 23:** 17:00/19:30/22:30
• **domeka 24:** 16:30/19:00/21:30
• **astelehena 25:** 18:30/21:00
• **martitzena 26:** 20:00

Ahora me ves 2

• **barikua 22:** 19:30/22:00
• **zapatua 23:** 17:00/19:30/22:30
• **domeka 24:** 16:30/19:00/21:30
• **astelehena 25:** 18:30/21:00
• **martitzena 26:** 20:00

Un espía y medio

• **barikua 22:** 22:00
• **zapatua 23:** 19:30/22:30
• **domeka 24:** 19:00/21:30
• **astelehena 25:** 21:00
• **martitzena 26:** 20:00

Ice age. El gran cataclismo

• **barikua 22:** 19:30
• **zapatua 23:** 17:00
• **domeka 24:** 16:30
• **astelehena 25:** 18:30

> ZORION AGURRAK

✉ zorionak@anboto.org
eguztaren 14:00ak arteko epea



> Zorionak, etxeko printzesa! Abuztuaren 21ean 7 urte bete dituzulako. Aitaren, amaren eta Oierren partez! Maite zaitugu, **Garazi!**



> Zorionak, **Alluitz!** Gaur 3 urte! Patxo potolo bat amaxon, aittetxon eta Ametzen partez. Ikeragarri maitte zaittuan!



Ermodo, 11 · DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com

f **Gozatu Gozotegia**

Zorionak, **Paule Abanzabalegi Iza!** Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.



> Zorixonak, printzesa! Uztailearen 22an 8 urte. Muxote potolo haundi haundia etxekuen partez. Ondo pasa, **Irafi!**



> Uztailearen 25ien gure saltserok urtebete eingo dau. Jarraitu gure egunak alaitzen. Zorionak, **Adeitxo!** Asko maitte zaittuan!



> Uztailearen 21ean 7 urte bete dabezan gure neskatilari muxu erraldoi bat etxekoen ta lagunen partez.



> Uztailearen 17an **Olatzek** urteak bete zittun. Zorixonak Uxue, Manex, Maddi, Enara, Markel eta Beñaten partez, familiaren partez!



> Uztailearen 27an **Enekok** 10 urte beteko ditu. Zorionak eta kriston musua etxekoen partez



> **Izarrek** gaur 4 urtetxo egin ditu. Zorionak laztana etxekoen partez! Patxo potolo bat eta ondo pasa eguna.



> Uztailearen 27an, etxeko sorgintxuek 4 urte beteko dauz. Ondo pasa **Jare** eta disfrutau zure egunien, aita eta aman partez.



> Pasa dan zapatuan **Puri** eta **Antonioren** 50. urtemuga ospatu genuen. Eskerrik asko, familia.

> BOTIKAK

BARIKUA, 22
09:00-09:00

Navarro
Arteakalea 6 - Durango

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

22:00-09:00

Aramburu, Maria
Isabel-Guarrotxena, Javier
Txiki Otaegi 3 - Zornotza

ZAPATUA, 23
09:00-09:00

Mugica
Andra Maria 9 - Durango

09:00-13:30

Bazan Diaz
Uribarri 5 - Durango

De Diego
Intxaurren 22. - Durango

Navarro
Arteakalea 6 - Durango

Campillo
Montevideo etorb. 24 - Durango

Jaio-Olabarrieta
Errekakale 6 - Elorrio

Bartolome
Gabiola 2 - Berriz

Melero, Rosa Mari
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

22:00-09:00

Aramburu, Maria
Isabel-Guarrotxena, Javier
Txiki Otaegi 3 - Zornotza

DOMEKA, 24
09:00-09:00

Balenciaga
Ezkurdi plaza 8 - Durango

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

22:00-09:00

Aramburu, Maria
Isabel-Guarrotxena, Javier
Txiki Otaegi 3 - Zornotza

ASTELEHENA, 25
09:00-09:00

Campillo
Montevideo etorb. 24 - Durango

Guarrotxena, Lide
Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

MARTITZENA, 26
09:00-09:00

De Diego
Intxaurren 22. - Durango

Guarrotxena, Lide
Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

EGUAZTENA, 27
09:00-09:00

Gaztelumendi
J.A. Abasolo 2 - Durango

Guarrotxena, Lide
Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

EGUENA, 28
09:00-09:00

Ettxebar Bazan Diaz
Uribarri 5 - Durango

Guarrotxena, Lide
Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Zorionak Izaskun
Ugalde Lauzirika!

Anboto lagunaren artean
zozkatutako astebeteko
bidaia irabazi duzu



Anbotoren lagunak
Lekuan lekuko lagunak



www.anboto.org
Tel.: 946 816 558
lagunak@anboto.org

“Pianoa jotzen dut, ez naiz pianista; hatzek ez lidakete hainbesterako emango”

Ikasturtea amaitzean, urte guztiotan ikasle izandakoek omenaldia egin zioten esker ona agertzeko

➤ **AKUILUA** Aitziber Basauri
Ikasle-irakasle harreman horretatik haratago doan “konexioa” lortu du Mila Rodriguezek Izurtzan. Hala dio bere burua pianistatzat ez duen durangar honek. Artista jaio egiten dela uste du berak, “badute halako zerbait jaioztatikoa dena”.

26 urte egin dituzu Izurtzan pianoa irakasten. Baina, uzteko unea heldu da...

Hala da. Gizarte Integratzaile ikasketak bukatu nituen duela urte bat.



tzuk, eta arlo horretan ere ari naiz lanean. Biak bateratzea zaila egiten zait, eta zaila egin zait, baina, erabaki bat hartu beharra nuen. Izurtza herri txikia da, eta aspalditik nekien ez zela luzarorako izango, lan nahiko ezegonkorra da eta.

Zenbat ikasle izan dituzu?

Ez dakit esaten. 30-40

lagun inguru. Askok ikasketak egiteko utzi egin zuten musika, eta gero bueltatu egin dira. Hasierako urteetan araututako musika eskolak ematen nizekien; azterketarako prestatzen ziren. Azken urteetan, gustuko dutelako etorri dira pianoa jotzen ikas-tera.

Musika irakasteko era aldatu da?

Bai. Baliteke kontserbatorioetan desberdina izatea, maila akademikoan

egiten dira-eta ikasketak neurri batean. Nik, ostera, musika gustatzen zaielako etorritako ikasleak izan ditut gehiago, eta bakoitzaren erritmoa errespetatu dut beti. Bakoitzak gura zuena, gustuko zuena lantzea gura izan dut; hori bai, beti sartu ditugu pare bat partitura klasiko.

Adin guztietako ikasleak izan dituzu, ezta?

Bai. Lau urteko neskatoa izan dut gazteena eta, helduena, 58 urtekoa. Aurten, lehenengo, kantu taldea ere sortu dugu: euskal kantak, habanerak, pop-a... abesteko. Hor 60 urteko ikaslea ere izan dut. Nagusiek zurrunagoak dituzte atzamarrak, eta gehiago kostatzen zaie pianoa jotzen ikastea; umeek elastikotasun handia dute.

Urte guztietako hainbat ikasle omenaldia egin zizuten...

Bai. Ez nuen espero inondik inora. Sorpresa handia izan zen, eta asko hunkitu nintzen. Negar batean hasi nintzen. Etortzerik izan ez zutenek ere mezu oso politak bidali zizkidaten. Oso atsegingarria da.

Harreman berezia izan duzu?

Bai. Gehienekin ikasle-irakasle hartu-eman horretatik haratago doan harremana izan dut. Oso pozik nago horregatik. Ikasleekin lortutako konexio hori garrantzitsua izan da. Gustura etorri naiz Izurtzara klaseak ematera, lasai, eta inguru atsegin batean aritu naiz.

Zenbat urte musikari lotuta?

Zazpi urte hasi nintzen ni

eskolan. Aitak saxofoia jotzen zuen, eta beti egon da musikari oso lotuta. Talde batean ere jo zuen urte askoan.

Pianoa jo duzu beti?

Bai. Hala ere, 16 urtegan lanean hasi nintzen, eta utzi egin nuen. Pianoak ordu asko eskatzen ditu. Esan behar dut pixka bat nazkatuta ere banengoela: ez nintzen lehenengoan ateratzen zaien horietakoa, baina, bai oso langilea, eta ordu asko sartuta ikasi nuen pianoa jotzen. Ikasle-irakasle harremana ere bestelakoa zen orduan. Pianoa jotzen ikastera larritasun handiagaz joaten nintzen, ez nuen batere disfrutatu. Hartara, lanean hasi eta guztiz baztertu nuen pianoa, sei urtez hautsa kentzeko ere ez nintzen hurbildu.

Urte batzuetara berriro hartu zenuen.

22 bat urtegan hartu nuen berriro, sakrifizio handiagaz. Oso gogorra izan zen. Piano ikasketen azken urtean, astelehenetik domekara zortzi ordu egiten nituen egunero.

Oso exijentea da musika?

Instrumentu bat jotzeko, bai. Nik pianoa jotzen dut, baina ez naiz pianista. Hatzek ez lidakete hainbesterako emango. Instrumentu bat jotzen duen profesionalak halako zerbait berezia izan behar duela uste dut.

Artista jaio ala egin egiten da?

Jaio. Baliteke bidean geratzea, denak eskatzen duelako sakrifizioa, orduak ematea. Baina, badute garatu egin behar den halako zerbait jaiotzatikoa dena.

LAUHORTZA

ANDONI BARREÑA

Irakaslea



Hizkuntzari eta kulturari eutsi nahian

Badira urte batzuk Durangaldeko zenbait lagun Kolonbiako Cau-cako nasa herriarekin hizkuntza biziberritzeko esperientziak eta ezagutzak trukatzan ari garela. Trukea Toribioko udaleko nasekin egiten da, bereziki Nasa Yuwe Hariko hizkuntza sustatzaileekin eta Wasakkwêwe'sx izeneko murgilketa eredu eskoletako irakasleekin eta gurasoekin.

Toribion 38.000 nasa inguru bizi dira, eta berrogei urtetik gorako gehienek jatorrizko hizkuntza badakiten arren, guraso gazte eta ume gutxiak dakite. Horrexegatik, 2012an 10 haurren gurasoek abiarazi zuten lehen Wasakkwêwe'sx eskola, Nasa Yuwe-a berreskuratzeke. Lau urte pasatu dira eta gaur badira 3 Wasakkwêwe'sx eta ea 100 haur eta gaztetxo, eta datorren urtean beste hiru zabaldu nahi dituzte. Guraso gazte askok nahi du bere seme-alabek jatorrizko hizkuntza ikas dezaten. Helduentzako eskolak ere antolatuta dituzte, eta urtero handitzen da ikasi nahi duten helduen kopurua. Aurten hizkuntza-plangintza ere diseinatzen ari dira, datorren urtean abiarazteko.

Oro har, metodologian, planigintzan, materialgintzan eta trebakuntzan laguntzea eskatzen digute. Zeregin horietan joaten dira euskaldunak esperientziak eta ezagutza trukatzera, opor garaian, borondate hutsez. Eurek mendeetan jasotako jakituria eskaintzen digute, naturarekin bizitz metatu duten ezagutza.

Oraingoan eskaera zehatza egin digute. Publikoki eskerrak eman nahi dizkiete eurekin partekatzen joaten diren euskaldunei, eta baita hori guzti hori egia izan dadin laguntza ematen duten erakundeei, bereziki Durangoko Udalari.

Deia egin nahi dut herrien arteko elkartasuna sendotu dadin eta bide honi eutsi diezaiogun.

5 KATEGORIA SARITUKO DIRA:

- ESKUALDEKO argazkirik onena.
- Durangaldetik KANPOKO argazkirik onena.
- “SELFIE”-rik onena.
- Argazkirik FRESKOENA.
- Argazkirik UMORETSUENA.

Informazio gehiago www.anboto.org webgunean

IRABAZI ASTEBURU PASA ZORAGARRIA



UDAKO 2. ARGAZKI LEHIAKETA

anboto
komunikabideak